



Eskaerak, gora

Elikagai bankuetara jotzen duten sakandarren kopurua %57,94 igo da pandemian / 8-9

Dorraoko Kontzejuak etxebizitza eskaera zein den ezagutzeko inkesta zabaldu du / 11

Olatzagutiko Elkartasun Sareak Bidelagun proiekturako boluntario bila / 13

Altsasuko Marino Ayerra etxegabeen aterpea larunbat eguerdian mustuko dute / 12

Aizkolariak, harri jasotzaileak eta trontzalariak igandean Irañetako Sakanako Herri Kirol Egunean / 16

Hamargarren Arte Azoka mustu dute, eta azaroaren 4ra arte zabalik egongo da / 21

'Bizipoza!' txistu kontzertua izanen da igandean, eguerdian, Arruazuko plazan / 22

Sakanaoptika
optometria • audiometria • hontoftologia

2x1
BETAURREKOETAN

Intxostia zeharbidea 10 (Altsasu)
948 563 124 | www.optikasakana.com

DOICE/GABBANA



Txorongo Txaranga Altsasuko festan izanen zirenean kontzertua eskaini zuen plazan.

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

"Zergatik ez dugu txaranga bat sortzen?". 1996. urtean Haize Berriak banda hasi berria zen, eta Zelandin entseatzan zuten. Musikari gazteenek "beti bueltak ematen" zizkioten gaiari, izan ere, Lorenzo Gonzalez Urkizu Txaranga Txorongoko kideak azaldu duen bezala, "beti kanpoko txarangak eta jendea etortzen zen. Zergatik ez gara gu elkartzen?". Baietz pentsatu, eta entsegu batean bertan txaranga bat sortzea erabaki zuten. Arbizutik Olaztirainoko jendea biltzen zuen taldeak, tartean Esther eta Jesus Irisarri, txarangaren ideologo nagusietako bi. Txorongo, hain zuzen, Estherren ideia izan zen: "Behin txaranga sortuta izen bat behar genuen, eta Esther filologoa zenez hitz joko hau bururatu zitzaion: Txaranga Txorongo Txaranga".

Txaranga berria zen, baina musikariek txarangetan jotzen

Festen arima

Txaranga Txorongo sortu zutenetik 25 urte bete dira aurten. Bi urteren ondoren, pandemian zenbait emanaldi egin badituzte ere, Altsasuko Ferietan kaleetara itzuli ziren. Jendearekin elkartzeko gogoia zuten

esperientzia handia zuten. "Esaterako, ni aurreko urtean Oberenan egon nintzen, sanferminetan, Irisarri Harmonia Txantrean eta Pamplonesan egona zen, Tolosako inauterietara errefortzu moduan joaten ginen...". Baina Txaranga Txorongo Sakanako lehenengo txaranga "modernoa" izan zen. Altsasun egoitza zuen, baina ia Sakana osoko musikariak biltzen zituen. Aurretik Olaztin La Cigarra txaranga zegoen, baina herriko festetan ateratzen zen, eta olaztiarrek osatzen zuten. Txaranga

Txorongo Sakanako lehenengo txaranga izan zen.

Musikariak

Sorreratik hamabi pertsona inguru egon direla esan du Gonzalezek. "Txaranga baterako osatua: hiru perkusio, hiru tronpeta, bi saxo, tronboia, tuba, bonbardinoa...". Xabi Garziandia, Pedro Jimenez eta Javier San Felipe arduratu ziren perkusioaz, Constantino Gonzalezek, Juanpa Agirrek eta Peio Igoak tronpeta jotzen zuten, Lorenzo Gonzalez saxo

jolea zen, Esther Irisarri eta Mikel Goñirekin batera. Txaranga sortu eta gutxira Olaztik Sergio Gastaminza tuba jolea sartu zen formazioan, bonbardinoa Jesus Irisarrik jotzen zuen eta Javier Landa ere tronboiarekin hasi zen.

25 urte hauetan txarangan "etengabe" egon den bakararra Gonzalez izan da. "Lanagatik, familiagatik edo bestelakoengatik joan eta etorri asko egon dira". Baina inork ez du inoiz txaranga guztiz utzi. "Egunen batean laguntza behar badugu,

eskatu, eta etortzen dira". Urteetan jendea txarangatik atera da eta sartu da. "Baina ofizialki ez da inor joan".

Azken urteetan odol berria sartu da txangan. Izagirre, Palacios, Otamendi, Pozik, Ginea, Cerezo, Zubieta, Lumbreras... "Bueno, Lumbreras gazte-gaztea ez da, baina lehen ez zegoen, eta orain sartu da". Txarangak beste 25 urterako duela aipatu du musikariak, "gu ez gara iritsiko, baina gazteak bai". 20 urte inguruko gazteak dira.

Lagunak

Txaranga bateko kidea izateko "musikarekiko pasioa" izan behar duzu. Baina horrekin ez da nahikoa. "Jendetasuna ere izan behar duzu". Gerta liteke musika kalitate oso oneko txaranga bat egotea, baina kideak atseginak ez badira, jendeak ez du txaranga hori nahiko. "Herri bat ez da bakarrik musikarekin konkistatzen". Gustu guztietara mol-



EGOKI

Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



datzeko ahalmena izan behar du txaranga batek ere.

Publikoaren eta txarangaren arteko "konplizitatea" ere ezinbestekoa da. Baita txaranga kideen arteko harremana ere: "Ordu asko dira, eta harreman berezia sortzen da". Musikarien artean sortzen den "lotura berezi" hori. "Mundu bat da, eta elkarbizitza batzuetan zaila da. Onerako eta txarrerako. Edo harreman oso onak egiten dituzu edo guztiz apurtzen da harremana". Txorongoaren kasuan "oso ongi" joan dela esan du. "Gustura ez dagoena joaten da, baina ez da horrelako kasurik egon, ez da inor joan gustura ez zegoelako". Jendea aldendu denean bizitzako kontuengatik izan da. "Zenbait arrazoiengatik ezin izan dute txaranga behar bezala eraman eta erreserban egotea erabakitzen dute". Baina guztiz utzi, ez.

Jende guztia festan dagoenean, txaranga lanean dago. "Eta disfrutatzen". Beste modu batera. "Bestela, gaur egun, ezin da eraman. Duela 25 urte hasi ginenean denak mugitzen gintuen: diruak, musika jotzeak... Baina, gaur egun, adin honekin, mugitzen gaituena ateratzea eta mugitzea da". Bizirik egotea, orokorrean. "Errutinatik deskonektatzen zaitu, eta orain gaztetxoekin eguneratuta zaude. Sartu berriak gure seme-alabak izan zitezkeen, eta denetarik ikasten duzu. Ideien elkartrukea dago".

El Rey

Txaranga Txorongoaren lehenengo emanaldia 1997ko Etxarri Aranazko festetan izan zen. "Oso oinarritzko" errepertorioa jo zuten: kalejirak, pasodobleak, mexikarrak, vals-ak... "Zonalde honetan normalean jotzen dena". Denborarekin errepertorioa "asko" aldatu dela azaldu du Gonzalezek. "Batzuetan, Los 40 irratia garela dirudi". Reggaton abestiak ere jotzen dituzte. Jota eta porrusaldatik irratian entzuten ari den azken abestira arte jotzen dute. "Jendeak abesti horiek eskatzen ditu".

Baina badira txaranga batek ezinbestean jo behar dituen abestiak: "Nabaritu dugu 25 urte hauetan bogaz pasatu ez diren abestiak daudela. *La chica yeye*



jotzen dugu eta jendea mugitzen da, *El Rey* mexikar abestia jotzen duzu, urte pila bat dituen, eta jendeak kantatzen du eta gozatzen du". Udako abestien boom-a pasatzen dela esan du. "*Despacito*, esaterako, inork ez du eskatzen dagoeneko". Modan egoten direnak, desagertzen dira.

Sakanatik mundura

Sanferminak, Guadalupe, Sigüenza, Madril, Nijako inauteriak, Barcelona... Txaranga Txorongo toki askotan da eza-guna. "Lehen ez zegoen hainbeste txaranga, orain formazio asko daude". Txaranga asko egon arren bakoitzak bere berezitasunak dituela azaldu du Gonzalezek: "Bakoitzak dauka bere publikoa. Oso desberdina da Nafarroako iparraldea edo hegoaldea, esaterako". Errepertorioan, jotzeko moduan eta abarretan nabarmentzen dira desberdintasunak. "Erriberakoak azkar mugitzen eta dantzatzen hasten dira, guri gehiago kostatzen zaigu; entzutekoa da". Eguraldiagatik izango omen da.

Entzateko astean behin elkartzen dira, eta deitzen dieten edozein herritako festetan jotzen dute. Asteak pasa izan dituzte etxetik kanpo ere. "Egunak 24 ordu ditu eta txarangari eskaintzen dizkiozu orduak ez dizkiozu familiari eskatzen, adibidez". Sakrifizioa da. Senideek eta lagunek ulertzen dute. "Ia profesionala den zaletasun bat

20 urteko gazteak sartu dira eta berak 50 urte ditu, "eta antzeko gauzak gustatzen zaizkigu. Elkarren artean osagarri gara. Ez dago belaraldi mugarik". Gustuko zerbait dute guztiek, "eta horrek adina baina pisu handiagoa du. Nire azalpen batek gazte batenaren balore berdina dauka". Beteranoek esperientzia eskaintzen dute, eta gazteek berritasuna.

Txaranga jai hartzen duten egunetan ere, "defektu profesionalagatik jotzen bukatuko genuke".

bizi dute Txaranga Txorongoan. "Ea noiz altxatzen zizuzten neurriak itxoiten". Askatasun "pizka bat" eman dutenean "jendeak gogoekin" hartu duela esan du Gonzalezek. "Oso luze egin zitzaidan. Gehienbat udan. Gutxi gorabehera egutegi bat egin dugu, eta emanaldirik gabe ia ez nekien zer egunetan bizi nintzen".

Aurreko asteburuan, Altsasuko Ferietan, ia bi urteren ondoren, kalejira egin zuten. "Urduri nengoen. Ia lehenengo aldiz bezala. Ez dakizu zutaz ahaztu diren edo zu haietaz...". Hunkigarria izan zela aitortu du Gonzalezek. "Gogo handiak" zizuzten. Ferietako kalejira aurretik zenbait emanaldi eskaini ditu Txorongo bi urte hauetan. Esaterako, udan Iortia zabalguneko oholtza kontzertua egin zuten. "Horrelako formatu batean jotzen dugun lehenengo aldia izanda". Herriren batean kioskoan jo izan dute, bermutaren orduan. Auzateetan ere "geldi" egon ohi dira, baina oholtza gaineko lehenengo kontzertua izan da. "Txaranga mugitzeko musika da". Pandemiarekin geldirik jo behar izan zuten, eta esperientziarekin pozik gelditu ziren "Jendea pozik atera zen".

Festak

Kale hustu batean ere txarangaren doinuak entzuten direnean, hasten da festa. "Nik uste festak txaranga gabe ez zirela ezer izango. Bajadikana zenbat jende bildu zen? Utzi digutenean jendeak

erantzun du". Gogo handia zegoen. Musikaren garrantziaz askotan eztabaidatu dutela aipatu du Gonzalezek: "Musika betidanik egon da".

Festen eta emanaldien egutegia oso zabala da. Baina Gonzalez Altsasuko festetako irteerekin gelditzen da. "Nire herrian asko disfrutatzen dut. Edozein festetan". Bat aukeratzekotan inauteria aipatu du. "Altsasuko festak bost egun dira, baina inauteriak urte erdian harrapatzen zaitu eta desfilean joatea, momotxorroekin eta abarrekin...". Berezia da.



da". Hori da, agian, Gonzalezek txaranga kide gisa gutxien gustatzen zaiena: "zenbait gauza alde batera utzi behar dituzula. Agian festa egun batean koadrillarekin bazkaltzera joan nahi duzu, eta ezin duzu jotzera joan behar duzulako". Baina "zer dagoen" badakite. "Bajadikana elkartuko gara eta listo".

Txaranga aritzearen alde hoberena, aldiz, kideen arteko laguntasuna dela nabarmendu du. "Lagunak garela". Orain

Gonzalezi gertatu izan zaio oporretara joan dela eta talderen baten emanaldia ikusten ari zela, "gaizki pasatu izana, jotzea nahi nuelako". Gustura egiten dute eta ez badute jotzen "arraro" sentitzen dira. "Lekuz kanpo bezala, zer egin jakin gabe". Txarangarekin hartzen duten konpromisoa handia da. "Emanaldi bat ez egiteko pisuzko arrazoiak egon behar dute".

Pandemia

COVID-19 birusak eragindako pandemia "ateratzeko gogoekin"



ASTEKOA

AITZIBER GRADOS MUÑOA

Erromantik.O

"Ez du negar egitea merezi", "Indartsuagoa izango zara orain" eta antzeko esaldiak behin eta berriz. Egoera zailen aurrean poztuko omen zaituen esaeraren bat: "Zulo beltzetik aterako zara", "Ondo aterako da", "Lasai egon"... Kokoteraino nago. Ez dugu minaren sentimendua onartu nahi eta "porrotari" beldurra diogu. Bizitzako egoera mingarriak erromantizatzea are mingarriagoa zaigu, errealitatea ikusezin bihurtuz geure burua engainatzen baitugu. Sufriarazi egiten diguten jazoeren gaineko irakurketa egin beharrean edozein albo kalteri izkin egin eta utopia berdinarean esklabu gara. Eta noski, egoera gogor desberdin asko daude; ez naiz ari egoera horiei "aurre" egiteaz -edozein

TRISTE SENTITZEN GARELA ONARTZEKO ETA ADIERAZTEKO BEHARRA ALDARRIKATZEN DUT SOILIK

kasutan ez baita lan erraza eta arazoetatik deskonektatzeko edozein baliabide baita "aitzakia". Triste sentitzen garela onartzeko eta adierazteko beharra aldarrikatzen dut soilik, arazotik aldentzen

gaituen jarrera erromantikotik urrun. Geure burua egoera korapilatsuetan ezagutzea beharrezkoa da, geure bertsio zaurgarriari galderak egin eta erantzunetan galtzea. Helmugarik gabeko bide horretan galtzea, gizatiarra baita.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

OBJEKTIBOTIK



Iñaki Abad @abad_altsasu · 1 h

"etxeko edo gertuko hedabideei benetako eskertza egin nahi diet. Ezer eskatu gabe dena eman duzue."



Guaixe @guaixe · 1 h

ASTEKARIA | Bi urte hirugarren graduan pasa ondoren, urriaren 4an erabateko askatasuna lortu zuen Iñaki Abadek. Bost urte pasa dira Altsasuko auzia bezala ezagutzen denaren gertakariak izan zirela.

"Beti txarrenera jo dugu"

@erkuden_

guaixe.eus/altsasu/163430...

Telegram kanal berria

Sakanako
informazio guztia
zure eskura

guaixe



guaixe

SAKANAKO ATEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Felix Altzelai Iriarte

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidor Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Sakanako hostoak eta animaliak ezagutzera

'Naturanitzean Gozaten' programak hilaren 31rako naturaren hizkuntza ikasi eta ezagutzeko txangoa egingo du San Pedro hariztira. Izena ematea zabalik dago Mank-en, lastailaren 25era arte

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak eta Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuak *Naturanitzean Gozaten* programa antolatu dute elkarlanean, Sakanako natura ezagutu, kirol praktika berriak sustatu eta lagun berriak egiteko. Programa ilbeltzean hasi zen, eta ordutik Sakanako txoko eta mendi ederretan barna hainbat irteera edo ekimen antolatu dira. Hurrengoa lastailaren 31n, igandearekin, izanen da: *Naturaren hizkuntza ikasi eta ezagutu* lelopean San Pedro eta inguruko paraje eta harizti ederretan egingo den ibilbidea.



Programaren barruan ipar martxan egiten aritu ziren Ergoienan. ARTXIBOA

Hostoekin herbarioa osatu

Hitzordua hilaren 31, 10:00etan izanen da, Altsasuko eta Urdiaingo San Pedron. Bi ordu inguruko iraupena izango duen ibilbide zirkular bat egitea da asmoa, zailtasun txikikoa. Familian edo bakarka egiteko jarduera aproposa izanen da. Ibilbidean naturaren hizkuntza ikasi eta ezagutu nahi da, eta, horretarako San Pedroko eta inguruetak harizti bikainetako hosto desberdinak aztertu eta egur hilean bizi diren animaliak ezagutzeko dituzte. Herbario ederra egingo dute.

Txangorako arropa egokia eta zola ona duten oinetakoak eramane beharko dira, eta baita haizetik babesteko moduko zira. Ura eta hamaiketako norberak eramane beharko du. Jarduera euskaraz izango da, eta norbaitek ez badu ulertzen, erdaraz emango zaizkio azalpenak.

Programaren helburuak

Anitzarteaneko teknikari Bego Zestau Baraibarrek azaldu zuen helburua: "Sakanan natura anitzta da, orduan goza dezagun naturak eskaintzen digunaz.

Izen ematea

Lastailaren 25era arte, Kirol Zerbitzuak (948 464 866 edo kirolak@sakanamank.eus) edo Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuak (648 07 07 10 edo anitzartean@sakanamank.eus). Leku mugatuak, izen emate ordena gordeko da (gutxienez 6 eta gehienez 18). Prezioa: 10 euro (10 eta 25 urte bitartekoek edo 65 urte gehiagokoek, 5 euro).

Bide batez kirola egingo dugu, osasuntsua dena. Kirola ere anitzta denez, programazioan kirol ezberdinak egiteko proposamena egin dugu. Eta, bukatzeko, jende anitzen artean egingo dugu. Horrek ekarri ahalko digu elkar ezagutzen ez dugun pertsonak goiza elkarrekin pasatzea, modu baikorrean, egunaz gozatuz. Hori da helburua, aniztasun hori guztia uzartzea".

BADATOR

SAKANAKO

GIDA

2022



ZURE ESKAERA

2021 EKO

URRIAREN 28A

BAINO LEHEN

EGITEN BADUZU

2022

ONLINE

DOAN

SAKANAKO GIDA KOMERTZIALEAN AGERTU NAHI BADUZU: 948 564 275 | 661 523 245 | publi@guaixe.eus



Txarangak jendea erakarri zuen. PIKUXAR

Majo asko mustu zuten bazkideek Pikuxar elkarteak

Pikuxar elkarteko bazkideek larunbatean festa giroan mustu zuten elkartearen eraikin berria

IRURTZUN

Iratxo eta Erga Larreak elkartearen ondoren, Irurtzungo hirugarren elkarteak bere egoitza berria larunbatean mustu zuen. Gari-laren 30az geroztik bazkideak elkarteak erabiltzen ari badira ere, mustutzeko osasun egoerak onera egiteko itxaron zuten Pikuxarreko kideek. Mustutze eguna bertsoan abiatu zuten. Elkarteko bertso eskolako irakasle Joana Ziganda eta Mikel Olo ikaslea izan ziren bertsoan aritu zirenak. Ondoren bazkideak trikipoteoan ibili ziren. Bazkaltzera 70 kide elkartu ziren eta postrearekin batera iritsi zen Galtzagorri txaranga. Haien doinuekin tabernaz taberna ibili ziren. Elkarte azpian dagoen Piku plaza berrian musika jarri zuten txaranga joan ondoren. Eta, hasiera batean, afaltzeko izena emanda 14 bazeuden ere, 40 izan ziren elkartu zirenak.

Bost urte joan dira Pikuxarreko bazkideak hausnarketa egin eta egoitza berria behar zutela ondorioztatu zutenetik. Ordutik, edo aurretik, zuzendaritzan edota obra batzordean zeuden kideendako emozio handiko eguna izan zen larunbatekoa. Herri erdigunean zegoen etxe zaharra haien egoitza izateko berritzeko ahalegin handiak egindakoak dira elkarteko kideek.

Azaldu dutenez, zuzendaritza berritzeko urtean bi batzar orokor eginen dituzte eta aldiro bi kide ordezkatzuko dituzte, bi urtetan guztia berritu arte. Guztira 129 bazkide dira, azken hamarrak hilaren 12an egindako batzarrean onartu zituzten. Pikuxarretik jakinarazi dutenez, oraindik ere bazkide gehiago hartuko dituzte. Interesa duenak pikuxar4.0@gmail.com e-posta helbidera idatzi beharko du.

Errigorako zareak eskatzeko garaia da

Larunbatetik azaroaren 11ra arte 'www.errigora.eus' web orrian eska daitezke, bestela, herrietako ohiko tokietan. Bildutako diruaren laurdena Nafarroa hegoalde eta erdialdeko euskalgintzari bideratuko zaio

SAKANA

Udazkeneko 2013tik Nafar hegoaldeko uzta, euskarari puzka kanpainarekin, Nafarroa hegoaldeko eta erdialdeko produktuz osatutako zareak eskaintzen ditu Errigorak. Aurten *Herriak egiten du herria* leloa aukeratu dute kanpainarako. "Denbora gehiegi joan zaigu aldaketaren zain; guk geuk alda dezagun bestela izatea nahi genukeen hori. Herriak egiten du herria", adierazi dute ekimenaren sustatzaileek.

Errigorak hiru zareko eskaintza osatu du: beltza edo normala (55 euro), berdea edo ekologikoa (65 euro) eta txuria edo berezia (75 euro). Aurreko urteetan bezala saskiak milaka etxetara eramaten ditu Errigorak, auzolanean. Eta horri esker, Nafarroa hegoaldeko eta erdialdeko euskalgintzari ekarpen ekonomiko garrantzitsua egiten dio. Izan ere, saski bakoitzaren balioaren %25 ematen zaie ai-



Antolatzaile batzuk. ERRIGORA.EUS

patu eskualdeetako AEKri, Nafarroako Ikastolen Elkarteari, D ereduia sustatzen duen Sor-tzeni eta Agerraldiari.

Azken hori Errigoraren esku-tik sortu da, baina izate eta forma propioa du, bertatik ber-

tarako mugimenduarena. Garestik Kortesera eta Zangoatik Bianara, eremu horretan euskarari hauspo berria emateko ezagutza bultzatu, erabilera sustatu eta euskararekiko jarra- baikorak birsortu nahi ditu. Beti ere, eskualdeko bertako euskaltzaleek sustatuta. Agerraldiaren fruitu dira: euskarazko ludotekak 18 herrietan, euskara planak ekoizleen etxeetan, Union Tuterako kirol klubaren sorrera, euskararen egunak, hizkuntza paisaia euskalduntzeko ekimenak, bertso eskolak, edota sentsibilizazio kanpainak.

Errigorak bere burua "Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes dituen ekimen herritar" gisa definitzen du. "Nafarroa hegoaldea du ardatz eta euskara ofiziala ez den eskualdean eragin nahi du, eremu horretakoak propio diren elikagaiei Euskal Herrian bidea emanaz, euskaratik, euskararako eta euskaraz" gaineratu dute.



WWW.BIZIPOZA.EUS

Bizipozak disko berria bidean du

Joan den urtean abiarazitako 'Mundu berri bat guztiontzat' proiektuari segida eman dio Bizipoza elkarteak, 36 elkarte batzen dituen. Proiektu horrekin Bizipozak elkarteek egunerokoan lantzen dituzten gaiak eta haien errealitateari buruzko abestiak eta

bideoklipak sortu dituzte eta CD eta DVD argitaratu. Ilbeltzean 12 elkarereren errealitatea gizarteratuko dute. Hilaren hasieran grabatu zituzten kantuak. Motxila 21ekoak ere izan ziren han, tartean Aintzane eta Ainhoa Lizarraga Etxeberria eta Andoni Zilbeti Elia.

- BEROKUNTZA - NEKAZARITZA -
- AUTOMOZIOA -

 **Lakuntza**



Etxera eramateko gasoleoa
Alberto Iriarte
948 576 016 - 609 421 680

XX. mendeko Altsasuren erretratua egina

46 altsasuarren testigantzekin osatu dute. Asteazkenean aurrenekoz eman zuten Iortia kultur gunean eta heldu den asteazkenean, atzera ere, emanen dute, 17:00etan. Gonbidapena alde zurretik jaso behar da.

ALTSASU

Herriko ahozko eta materiagabeko ondarea jasotzeko hitzarmena sinatu zuten Altsasuko Udalak eta Labrit Ondarea enpresak. Horren ondorioz 46 altsasuar adindu elkarrizketatu zituzten. Guztira 143 memoria ordu eta 3.713 oroitzapen jaso dituzte. Eta haien lagin bat, 51 minutuko ikus-entzunezkoa, estreinakoz, asteazkenean erakutsi zuten Iortia kultur gunean. 46 elkarrizketatuek bere elkarrizketaren kopia bana jaso zuten atzo. Jasotako guztia Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) sustatzen duen Navarchivon, Nafarroako Ondare Immaterialaren Artxiboan, bukatuko du. Baina udala lana altsasuarren artean nola banatu aztertzen ari da.

Ikus-entzunezkoaren aurreneko emanaldirako Iortia kultur guneko areto nagusia guztiz bete zen. Ikusleek "anekdotaz betetako lan polita" ikusi zutela esan zuten akaberan. Javier Olo Martinez alkateak esan duenez, "aurrerantzean, Altsasuko Udalak betiko gordeko den memoria izango du, eta Altsasun bizi diren eta biziko direnei transmititzeko aukera izango du". Ikus-entzunezkoa www.altsasueus web orrian ikusgai izanen



Iortia kultur gunea bete egin zen asteazkeneko aurkezpenean. @LABRIT_NET

dela aurreratutako alkateak. Urte bukaerarako udalak Interneteko ataria berrituko du eta orduan jarriko du ikusgai bideoa. Berarekin batera ekitaldian grabazioen ardura izan zuen Labrit enpresako kide batek eta NUPeko ordezkariak izan ziren. Ekitaldiari doinua Itziarrek, Aritzek eta Amaiurrek eta Trasteando taldeak jarri zioten.

Joan den mendeko Altsasu hartan herriak "ez zuen espaloirik; plazan bakarrik. Gainerakoa lokatza zen. Espaloiak jartzea izan zen gerra ondoren

egin zuten aurreneko gauza", gogorarazi zuen Jose Luis Fernandez de Garaialde. Maria Angeles Artolak nabarmendu zuen bere etxea izan zela aurrenetariko telebista izaten; haren etxean "bizilagunen bisitak oso ohikoak ziren aparatu hura ikusteko". Kontakizunetan jaso dira, besteak beste: artoaren bilketa, abereak landara ez alde egiteko hesiz itxitako herria, garbategia, geltokia, trenbideak, intxaurrondoa, eskola, Extremadurako enborra, euskara, galtzak zituzten emakumeak...

Lanak herri erdian

Excavaciones y Transportes Orsa SM enpresako langileak atzo hasi ziren Gartzia Ximenez kaleko zati bat egokitzeko lanak egiten. Zehazki, espaloia eta errepidea altuera berean jartzea. Egitekoak despeditzeko 30 egun izanen ditu enpresak. Lanak trafiko handia hartzen duen kale batean egiten ari direnez, tentuz gidatzea gomendatzen da.



Bakaikuko Gaztaina Mozte Eguna igandean ospatuko da

Plazan, domekan, 09:30ean, jarri dute hitzordua. Handik autoz Izkibileraino joanen dira. Aurretik egitekoa iñurriya gaztainondoak markatzea izanen da. Gaztainak jasota, plazara bueltatuko dira fruituak lorontzietan landatzeko. Despeditzeko udazkeneko pintxoak dastatzeko aukera izanen da tabernan eta elkartean.

Arruazuko estrategia planari beste bultzada bat

Arruazuko Estrategia Plana egiteko prozesuaren barruan, herriaren diagnostika egina dute. Horretan lagundu zuten hasieran egindako hiru talde bilerek. Guztien ekarpenekin eta lehen batzar irekian parte hartu zutenekin osatu zen diagnostika. Dagoeneko herritarren herena pasak parte hartu du prozesuan. Hurrengo bi batzarretan arba-zuarrek herrian sumatzen dituzten premiak zehaztuko dituzte: zer zerbitzu behar diren, zer falta den... Hamar edota hamabost urteko ikuspegi izatea eskatuko zaie. Larunbatean, 17:00etan, batzar irekia dute. Eta azkena azaroaren 20an izanen da.

Arbizuko eskola zaharren geroa zehazteko batzarra

Larunbatean, 11:00etatik 13:00tara, eskola zaharretan bertan, eraikinarekin zer egin erabakitzeko batzarra egingen da. Jasotako 74 inkestaren emaitzen berri emanen du Elhuyarrek, parte hartze prozesua bideratzeko udalak kontratatutako enpresak. Ondorioen txostena aurkeztuko dute. Ondoren "ideiak jorratu eta erabakiak hartuko" dituzte, Arbizuko Udalak azaldu duenez. Horregatik, udalak arbizuarrek batzarrean parte hartzea gonbidatu ditu.

Arbizuko eskola zaharren eraikinak, 2019ko udazkenetik ez du ikaslerik hartzen. Orduetik eskola zaharrean zenbait jarduera egin dira.

berria ekitaldiak

Olatz Salvador

KONTZERTUA

Azaroak 6

Larunbata · 19:30

Altsasu

Iortia kultur gunea

Sarrerak:

- Aurretik, 12€ (BERRIALagunek 10€)
- Egunean, 14€ (BERRIALagunek 12€)

Sarrerak salgai:

- BERRIAN: Berria.eus/berrialaguna/denda helbidean edo 943 30 43 45 telefonora deituz
- Iortia kultur gunean eta www.iortiakultura.com helbidean

Ekitaldian osasun neurri guztiak bermatuko dira.

#KulturaSeguruaDa

Antolatzaileak:

berria

BADOK

Mank

Laguntzaileak:

Nafarroako Gobernua | Gobierno de Navarra | Altsasu Udalak



Sakandarrak ez daude pobrezia-aren mamutik salbu. ARTXIBOA

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Pobreziarako eta gizarte bazterketarako arriskua aztertzeke AROPE (At Risk Of Poverty and/or Exclusion) adierazlea erabiltzen du Europar Batasunak. Horren arabera, Nafarroa pobrezia indize txikiak dituzten Europako eskualdeen artean hamargarrena da. AROPE tasak bezala, Giniren indizeak edo S80/S20 ratioak, Nafarroa Espainia eta Europa osoa baino egoera hobean kokatzen dute pobrezia-aren eta desberdintasunaren arloan. Hala jakinarazi zuen M^a Carmen Maeztu Villafrañan Gizarte Eskubideetako kontseilariak joan den ostegunean, *Nafarroako pobrezia-ri eta desberdintasun sozialari buruzko V. txostenaren aurkezpenean*.

Txostenaren datuek erakusten dutenez, Nafarroak, funtsean, desberdintasun eta pobrezia maila baxuak mantendu ditu, baina pixka bat gora egin du. Pobrezia erlatiboa hamarren bat jaitsi den bitartean, pobrezia larria hamarren bat hazi da Nafarroako Errentaren Estatistikaren arabera. AROPE pobrezia tasari dagokionez, hiru hamarren igo den arren (11,7tik 12ra), Nafarroa da oraindik tasa txikiena duen erkidegoa. "Hala eta guztiz ere, zantzu argiak daude COVID-19ak dauden desberdintasunak areagotu dituela eta pertsona pobre eta kalteberenei gehien eragiten diela", esan zuen Nafarroako Gobernu-ko kontseilariak.

Pobrezia-aren gaitza

Europako eskualde guztietatik Nafarroa pobrezia tasa txikieneko hamargarren postuan dago (2019an). Maeztu kontseilariak enpleguaren kalitatea hobetzeko eta haurren pobrezia-ri aurre egiten jarraitzeko beharra azpimarratu du

Pobrezia arriskua ibarrean

Txostenak COVID-19ak eragin-eko pandemiaren aurreko egoera islatzen du, 2019ra artekoa. Bertan Nafarroako Estatistika Institutuaren datuak jasoak daude. Haren arabera, pobrezia arriskuan dagoen nafarren kopurua 2015eko %23,2tik 2019ko %21,2ra jaitsi da. Bi puntu egin ditu behera. Sakanako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen hiru mankomunitateak Nafarroako batz bestekotik behera daude. Hala ere, ibarrean egoera ez da homogeneoa.

POBREZIA ARRISKUA MANKOMUNITATEKA: IRURTZUN %19,8, ALTSASU %15,9 ETA ETXARRI %11,8

Araitz, Betelu, Larraun, Lekunberri, Imotz, Arakil, Irurtzun Irañeta, Uharte Arakil eta Arruazuko udalak hartzen ditu Irurtzongo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak. Aipatutako bost urtetan mankomunitateko eremuan pobrezia arriskua 1,1 puntu besterik ez da jaitsi, %20,9tik %19,8ra. Irurtzongo da aldeketa gutxien izan duen ibarreko mankomunitatea, baita pobrezia arrisku tasa handiena duena. Nafarroako batz bestekotik behera dago Irurtzun, baina aldea bost urtetan 2,3tik 1,4ra txikitu da.

Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Altsasu, Olatzagutia eta Ziordia daude eta pobrezia-aren arriskua gehien jaitsi den Sakanako mankomunitatea da, 4 puntu, %19,9tik %15,9ra. Hau da, Nafarroako batz bestekotik 3,3

puntu azpitik egotetik 5,3 ego-tera pasa da. Lakuntza eta Urdiain arteko herriak hartzen ditu Etxarri Aranazko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak. Bera zen ibarreko hiruetan pobrezia arrisku tasa txikiena zuena 2015ean, %15,2, eta 3,4 jaitea lortu du, eta %11,8an gelditu da. Nafarroako batz bestekoarekin alderatuz 9,4 puntu beherago dago gaur egun, 2015ean, berriz, 8 puntu.

Pobrezia larria

Pobrezia arriskuarekin gertatzen den gauza bera gertatzen da

POBREZIA LARRIA MANKOMUNITATEKA: IRURTZUN %9,9, ALTSASU %6,9 ETA ETXARRI %5,2

pobrezia larriaren Sakanako datuei erreparatuz gero. Hiru mankomunitateak Nafarroakoaren batz bestekoaren azpitik daude. Baina egoera makurrera Irurtzun aldean dute. Bost urtetan pobrezia larria 0,2 besterik ez da jaitsi, %10,1etik %9,9ra. Urteak pasa hala foru erkidego-ko batz bestekotik gero eta gertuago dago, 2,2koa baitzen aldea 2015ean eta 1,4koa 2019an.

Altsasun pobrezia larriak 2,8 puntu egin du behera, 2015eko %9,7tik 2019ko %6,9ra. Denbora tarte horretan Altsasuko mankomunitateak Nafarroarekin aldea handitu du, 2,8 puntutik 4,4ra pasaz. Azkenik, Etxarri Aranazko mankomunitatean ere pobrezia larriak behera egin du, 1,9; %7,1ekoa zen 2015ean eta %5,2koa 2019an. Foru erkidegoarekin alderatuta, aldea handitu da, %5,2 izatetik %6,1era pasa da.

Ipar mendebalde

Elizondo, Bera eta Ziordia arteko eremua hartzen du gutxi gorabehera Nafarroako ipar mendebaldeak, Sakan bere baitan duena. Ipar mendebaldean eremuan pobrezia larriaren tasa %7,5ekoa da. Ibarreko bi mankomunitate daude kopuru horretatik behera: Etxarri Aranatz aldekoa, %5,2 eta Burunda mendebaldekoa, %6,9. Irurtzun aldeko mankomunitatea ipar mendebaldeko %7,5 horren gainetik dago, %9,9 baita pobrezia larriko tasa.

Soldata handienak jasotzen duten %20en errentaren batz bestekoa eta soldata txikiena jasotzen duten %20en errentaren batz bestekoa, bi adierazle horiek kontuan hartzen ditu S80/S20 koizientea, eta desberdintasuna aztertzeke erabiltzen da. Kopurua zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta gizarte kohesio handiagoa. 2019an Nafarroan 4,4koa zen. Hau da, diru sarrera handiena zuten nafarrek sarre- ra txikiak zituztenak baino 4,4 aldiz gehiago irabazten zuten batz beste. Ipar mendebaldean 4,59 zen, eta Europan 5,1.

Berमतutako errentari dago- kionez, nafarren %6k jaso zuten. Bestela esanda, 16.637 familia unitate edo 37.879 nafarrek jaso zuten errenta bermatua joan den urtean. Hilabeteko 636,15 euro ziren 2020an. Baina gene- roari erreparatuta aldeak daude: emakumezkoen %6,5 jasotzen

dute eta gizonezkoen %5,6. Ipar mendebaldean onuradunak %2,8 dira; emakumezkoak %3 eta gizonezkoak %2,7.

Erradiografia

Nafarroako Biztanleriaren Errentaren Estatistikak baieztatzen du Nafarroako pobrezia-aren intzidentzia azken urteetako mailetan mantendu zela. Adinari eta sexuari dagokienez, nabarmendu behar da pobrezia larriak eragin handiagoa duela emakumeengan eta 16 urtetik beherakoengan. Emakumeen kasuan, zifra hori 11,9ra iristen da, eta gizonen kasuan, berriz, 10,6ra. Haur pobrezia-aren kasuan (16 urtetik beherakoak hartzen dira kontuan), aurreko urteko %18,2a mantendu da, %11,3ko batez bestekoa baino askoz handiagoa.

Pobrezia larriaren ehuneko txikiena duen adin taldea 65 urtetik gorakoena da (% 4,4), eta, zalantzarik gabe, oso lotuta dago azken urteetan erretiro pentsioek izan duten igoerarekin, bai eta Nafarroako Gobernuak pentsio baxuei aplikatutako osagarriekin ere. Era berean, nabarmentzekoa da pobrezia eragin handiagoa duela Nafarroan bizi diren atzeritarren artean. Hamarretik sei, %58,9 zehazki, pobrezia arriskuan daude, Espainiako nazionalitatea duten pertsonak, berriz, %16,3. Hala ere, nazionalitate espainiarra duten atzeritar jatorriko pertsonak pobrezia tasa txikiagoak dituzte, baina, bertako biztanleek baino 3,3 aldiz handiagoak dira.

Oinarrizko etxeko unitate motak kontuan izanda pobrezia larriari erreparatuz gero, 2019an Nafarroako batez bestekoak baino tasa txikiagoak zituztela pertsona bakarrek eta 16 urtetik beherakoak ez dituzten pertsona bakarrek etxeek. Aldiz, 16 urtetik beherako adingabeak dituzten familiek pobrezia larria izateko aukera handiagoa dute, Nafarroako batez bestekoa baino 6 puntu handiagoa baita.

POBREZIAN ERAGINA DU JAIOTERRIAK; BERTAN JAIOTAKOEN ARTEAN %16,3 ETA MIGRATUAK %58,9



Elikagai bankuak betetzeko urtero bi bilketa egiten dira gutxienez. ARTXIBOA

Erabiltzaile gehiago dituzte elikagai bankuek

Pandemiaren ondoren hazi egin da elikatzeko laguntza behar duten sakandarren kopurua; %40,53 familiak eta %57,94 sakandar gehiagok behar dute. Guztira 319 familia joaten dira elikagai bankura, 935 sakandar; ibarreko populazioaren %4,61

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioetako bat hainbat familien ekonomia egoera da. Ekonomiak okerrera egin izanak, lana galtzeak, ezin opatzeak, etxetik ezin atera, telelanerako aukera ematen ez duen lan bat izan... Makina bat arrazoi daude etxe askoren ekonomia egoerak okerrera egiteko. Eta horren adierazlea da elikagai bankuen erabiltzaileen kopurua. Pandemiaren aurretik baino gehiago dira, Sakanako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen hiru Mankomunitateek jakinarazi dutenez.

Guztira Sakanako 227 familia unitatek jasotzen zuten elikagai bankuaren zarea joan den urte

hasieran, 592 pertsona. Gaur egun 319 eta 935 dira. Hau da, pandemiak iraun duen bitartean elikagai bankuaren familia unitate erabiltzaileen kopurua %40,53 hazi da. Eta, geroz, pertsona onuradunen kopuruak ere gora egin du, %57,94.

Irurtzun aldekoan (Aizkorbe eta Arruazu artekoa) pandemia aurretik 65 familia unitatek erabiltzen zuten elikagai bankua, 163 pertsona. Gaur egun 90 familia eta 266 pertsona dira, %38,46 eta %63,19 hazkundea. Etxarri Aranazko mankomunitatean (Lakuntza eta Urdiain artekoa) 2020ko hasieran 30 familia unitate, 80 pertsona, ziren baliabide hori erabiltzen

zutenak elikatzeko. Gaur egun 59 familia unitate eta 175 pertsona dira; % 96,67 eta %118,75 gehiago. Azkenik, Burunda mendebaldean (Altsasu, Olatzagutia eta Ziordia) pandemia hasi aurretik 132 familia unitatek jotzen zuten elikagai bankura, 349 pertsonak. Gaur egun 170 familia unitate eta 494 pertsona dira; %28,79 eta %41,54 egin du gora.

IGOERA MANKOMUNITATEKA: ETXARRI %118,75 IRURTZUN %63,19, ETA ALTSASU %41,55

Despopulazio arriskuagatik laguntzarik ez da iritsiko

Zortzi udalek eta kontzejuk 330.789,76 euroko balioa duten inbertsioak egiteko proposamenak egin zituzten

SAKANA

Nafarroako Gobernuak herrien despopulazioari aurre egiteko *Suspertu plana. Despopulazioari aurre egiteko azpiegiturak hobetzea* izeneko diru saila du. 1,2 milioi euroko aurrekontua

du, eta despopulazio arriskuan dauden udal eta kontzejuen artean banatzeko da. Sakandarrek eskaerak aurkeztu arren, ez daude aukeratutako 30en artean.

Udal eta kontzejuen proiektuak erreserban gelditu dira, erakun-

deren batek bere inbertsioa ez egitea erabakiz gero, beste bati emanen liokeelako dirua gobernuak. Puntuazioaren hurrenkerraren arabera osatutako zerrenda da. Honako lanak aurkeztu ziren (puntuazio hurrenkera): Arakilgo Udala udaletxeko aldagelak berritzea, 46.204,37 euroko aurrekontua; Etxeberriko Kontzejua jolas parkea berritzea, 12.933,09 euro; Egiarretako Kontzejua frontoiaren eskuin pareta ixtea, 56.349,75 euro; Etxarrengo Kontzejua frontoia kon-

Hondakin kudeaketari buruzko inkesta eginen da

Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzua arduratzen da ibarreko hondakinak jaso eta kudeatzeaz. Sakandarrek hondakinak kudeatzeko garaian dituzten oztopoak zein diren identifikatu nahi ditu Mank-ek. Baita herritarren artean hondakin kudeaketaren inguruan zabalduko inkestaren sinesmenak ere. Horretarako, Aztiker enpresa kontratatu eta haren bidez herritarrei inkesta eginen die. Sakandarrek telefono bidez (batzuk e-postaz) emandako erantzunak aztertu ondoren, Mank-ek komunikazio kanpaina bat martxan jarri nahi du, "hondakin kudeaketaren arloa guztion artean hobetzeko".

Mankomunitatearen konposta hartzeko aukera dago

Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzua gogorazi duenez, sakandarrek konposta hartzeko aukera dute. Horretarako, Utzubar EKO Gunetik pasa behar da. Mank-ek konpost planta martxan jarri zuen apirilaren 15ean. Horrek materia organikoa tratatzeko aukera handiagoa eman dio. Konpost plantak urtean mila tona hiri hondakin organiko eraldatzeko gaitasuna du. Ondorioz, konpost gehiago sortzen da, eta ongarri hori eskuratu nahi duenak lasai asko pasa daiteke hura jasotzera. Horretarako, Arbizun dagoen Utzubar EKO Gunetik pasa behar da astegunetan, 09:00etatik 14:30era.

pontzea, 96.733,43 euro; Hiriberri Arakilgo Kontzejua kontzeju etxean biltegia egokitzea, 28.951,26 euro; Ihabarko Kontzejua kontzeju etxeko erabilera anitzeko aretoko komuna berritzea, 7.271,50 euro, Uharteko Arakilgo Udala indarrean dagoen segurtasunari eta irisgarritasunari buruzko araudira egokitzea udaletxeko goiko solairuak, 49.846,16 euro eta Urdiango Udala komunak berritu eta frontoiaren irisgarritasuna hobetzea, 32.500,20 euro.

Herria auzolanean eraikitzen segitzeko deia

Altsasuarrak Dantzaleku eta Baso Itxi garbitzera gonbidatu ditu Altsasu Auzolanean eraikiz taldeak, hilaren 30ean, larunbatean, 10:00etan. Izena emateko: Iortia kultur etxeko sarreran, tabernetan edota 'altsasauzolaneaneraikiz@gmail.com' e-postara idatziz

ALTSASU

Festetako herri bazkaria antolatzeaz arduratzen da Altsasu Auzolanean eraikiz taldea. "Munduan pandemia egoeran dagoenetik, herria egiteari utzi diogu, herria ahaztuta daukagu (utzi dugu) eta inoiz baino gehiago herriak behar gaitu. Herria egin behar dugu", hausnartu dute. Eta, atzera ere, auzolanari heldu nahi diote. Izan ere, "azken aldian gure basoa txikitzen ari garela uste dugu, eta hau garbitzea izan zitekeela lehenengo auzolana pentsatu genuen".

Dantzaleku eta Baso Itxi garbitzea, eta ondoren bazkaria egitea proposatu dute Altsasu Auzolanean eraikiz taldekoek. Parte hartu nahi dutenek alde aurretik izena eman beharko dute. Taldearen esku dago azpiegitura erostea. Hori bai garbiketaren parte hartu behar dutenek, nork bere eskularruak eramane beharko ditu. Taldetik zehaztu dutenez, "auzolana, ez



Dantzalekuko zuhaitzak.

da bakarrik herriarendako lan egitea, auzolana, herritarrek elkartzeko eta denbora elkarrekin igarotzeko ere bada". Hilaren akaberakoa "beste hainbat antolatzekeo abiapuntua izatea espero dugu".

Altsasu Auzolanean eraikiz taldeak esan dutenez, "pandemiaren testuinguru arrotz honetan, herri bazkaria edota tankerako ekintzak antolatu ezin izanaren aurrean, auzolanaren filosofia ezin dugula alde batera utzi uste dugu. Hainbat behar ditugu herrian, herritarren artean asetzeko gai garenak". Altsasu Auzolanean eraikiz taldeko kideek "auzolanaren indarraren garrantzia" nabarmendu dute. Taldekideen iritziz, "badi-rudi egun dugun udalak ez dela honetan sinisten. Azken legegaldietan udalaren aldetik, auzolanaren ideia alde batera geratu delako". Eta adibide gisa jarri dute hilaren hasieran herri sarrerako zubiko hesia enpresa pribatu batek margotu izana, "duela urte batzuk herritar batzuek margotu genuena".

Altsasu Auzolanean eraikiz taldean "argi" dute "herritarrok ezin ditugula herriko kontu guztiak konpondu, landu edota eraiki. Baina, oraindik argi dugu, egingarriak diren lanak altsasuarron artean batuta egin ditzakegula, diru publikoaren kudeaketa hobea izan daitekeela altsasuarrak guztiendako, 'herria' egiten dugula erakutsiz".

Taldeak, eta aurrekariak

Altsasu Auzolanean eraikiz taldeak 2016tik antolatu dituen herri bazkariarekin lortutako diruarekin herriarendako baliabideak eskuratu ditu: herri bazkarietarako 350 pertsonarendako mahaiak, bankuak, sukaldarako tresneria eta abar, esku-ragarri daudenak.

Taldekideek gaztigatu dutenez, Altsasun hainbatetan erabili da auzolana: herri mugimenduko milaka dinamikak, festetan eta bestelako ospakizunetan erabiltzen diren komun publikoak, Dameroen bideko zubiak egin, herri sarrerako zubia margotu...



Berriki Baso itxin haritz amerikar ugari moztu dituzte.

Baso kudeaketa hobetzea proposatu du EH Bilduk

Neurriekin batera, 'daukagunaz' kontzientzia hartzea eta herritarren parte hartzea aipatu ditu koalizioak

ALTSASU

Altsasuko EH Bilduk herriko basoak hobetzeko hainbat neurri proposatu ditu. Horietan lehena da udaleko mendietarako langilea bakar-bakarrik horretan aritzea, eta ez beste lan batzuetan. Koalizioak adierazi duenez, "pertsonek hori helburu horiek betetzeko prestatuta dago". Horrekin batera, Altsasuko EH Bilduk proposatu du "itxiturak hobetzeko behar den aurrekontu partida jartzea"; gaztigatu duenez, "arazo larria da, mendiko itxitura eta larre askoren egoera txarra. Hori dela eta, ateratzen diren landare berriak ezin ditugu zaindu, ezin dugulako azienda kontrolatu eta, era berean, ezin dugulako azienda sartu itxiturak ondo ez daudelako". Udalerriko perimetro itxiera hobetu beharra dagoela ere nabarmendu dute, "herritik kanpoko azienda sartzea edo

bertako azienda barreiatzea saihesteko".

Amerikako haritza bertakoarekin ordezkatzeko epe ertain-luzeko plana eskatu du Altsasuko EH Bilduk, 10 edo 15 urtekoa. "Helburu hori lortzeko, hainbat urtetan jardura solteak egin behar dira, plangintza egin behar da, eta jarraipena egin". Aurrekoaren bidetik koalizioak eskatu du kanpoko espezieak edo espezie inbaditzaileak edozein modutan zabaltzen ez uztea; baso berritze erabilgarriak egin, ez galeriari begirakoak". Bertako zuhaitz espezieak landatzea eskatu du. Azkenik, koalizioak eskatu du "jende gehiago jartzea zaborra eta sasiak garbitzeko, azken aldian nahiko zikin baitago, baita ibaietako ezpondak ere". Gaur egun ibaietan dauden eta erabiltzen diren uharkek "ez diete batere mesederik egiten ez faunari ez landaretzari".

DUELA 25 URTE...



Gastronomia astea Altsasun

Ferien aurreko astean, gastronomia astea antolatu zuen Altsasuko Udalak. Idiazabal gazta, Nafarroako txahala, Arabako Errioxako ardoa, Bizkaiko txakolin eta Gipuzkoako sagardo dastaketak izan ziren elkarteetan. Guztia Izar Ondo, Borda, Iortia eta Iturrimurri jatetxeen plateraz lagunduta. Gainera, estreinakoz, I. Sakanako sukaldari gazteen txapelketa jokatu zen. Menu bat prestatu behar izan zuten 18an.

Larunbatak festa usaina izanen du Uharte Arakilen

Udalak 2019 eta 2020an jaiotako ubertearrei ongi etorria egin eta festetako ttattarra jartzeko eguna antolatu du. 12:30ean izan da harrera, plazan. 11:00etan erraldoi eta gaiteroekin kalejira izanen da. 16:00etatik 18:00etara haurrendako puzgarriak, pilotalekuan. 19:00etan Puro Relajoren kontzertua, plazan. Ondoren, auzatea eta zezensuzkoa.



Gaitaria eta erraldoiak. ARTXIBOA



Lizarragarako errepideko zorua berrituta eta eskuinean ezponda egina.

Lizarragarako errepidea berritu du gobernuak

Zoru berria jarri eta eskuin aldean porlanezko ezponda egin dute. Sakanako Autobian ere zorua berritu dute

LIZARRAGA / ETXARRI ARANATZ

Lurralde Kohesiorako Departamentuko Herri Lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiak Lizarraga eta Etxarri Aranzat arteko errepidea hobetu du. Asfaltos de Biurrin SA enpresak egin lanak. Errepideko hiru bat kilometrotan zoru berria jarri dute, Etxarri Aranzako Txinarmuño dermiotik Lizarraga pasa ondorengo errebuelta handiraino, Aranaundiarraino. Gainera, esandako Etxarri dermiotik Lizarraga bertaraino errepidearen eskuineko ezponda porlanezkoa egin dute. Lizarragako tunelean ere zorua berritu dute.

Guztira 7.200 tona pasa hormigoi bituminoso erabili dute. Errepidean, dagozkion arrastoak margotzearekin batera, Lizarragan lehengo bi zebra-bide goratuak ere egin dituzte, Intxorreta kalearen parean bata, kon-

tzeju etxearen parean bestea. Lan horiek 560.000 euroko (BEZ barne) aurrekontua izan dute. 2020ko Nafarroako Errepide Sarearen edukiera neurketaren arabera eguneko 916 ibilgailuren bat du aipatu errepideak, eta haren %5 garraio astuna da.

Sakanako Autobiako (A-10) hainbat puntutan zorua zaharrituta zegoen, eta Departamentuak berritu egin du; baita Etxarri Aranzako herriko autobia sarrera-irteerako bidegurutzean konpondu ere. Lan horietan 4.400 tona inguru erabili dituzte. Lanek 390.000 euroko (BEZ barne) kostua izan dute. Autobia eguneko 14.000 ibilgailuk erabiltzen dute, %14 ibilgailu astunak. Bi lanak kontuan izanda, guztira 950.000 euro (BEZ barne) bideratu ditu gobernuak. Foru administrazioak joan den urtean Lizarragako portuko zorua konpondu zuen.

Inkesta, etxebizitza premia zein den jakiteko

Dorraoko Kontzejuak meistruban etxea eta kontzejuaren egoitza zaharberitu nahi ditu, alokairuko hiru edo lau etxebizitza eraikitzeke. Horregatik, alokairuko zein eskaera dagoen jakiteko inkesta zabaldu du, asteartera arte erantzun daitekeena

DORRAO

Dorraoko Kontzejuak jakin nahi du herrian "alokairuko etxebizitza publikoaren benetako beharra zehatza" zein den. Horregatik, dorroubarren artean inkesta zabaldu du, kontsulta irekia egiteko. Kontzejuko presidente Idoia Resano Igoak azaldu duenez, "gure helburua da etxebizitza duina eskuratzeko jarduerak garatzea da, herriko bizilagun guztien oinarritzko eskubidea delako. Horregatik, inkestako erantzunak babes ofizialeko etxebizitzaren eskaintza diseinatzen lagunduko digute, gero eta handiago den alokairu beharrari erantzuteko".

Egiteko horretan Dorraoko Kontzejua Nafarroako Gobernuaren Nasuvinsa enpresa publikoarekin lankidetzan ari da; "prozesu osoan haien aholkularitza eta estaldura teknikoa jasoko dugu", azaldu du Resanok, gaineratuz "inkesta antolatzen, garatzen, eta gizarte etxebizitzaren eskaria identifikatzen lagunduko diguten etorkizuneko ikerketetan lagunduko digute". Kontzeju buruak nabarmendu duenez, "etxebizitza garrantzi handiko apustu estrategikoa da gure herriaren etorkizun sozioekonomikorako. Horregatik, galdera sorta betetzera gonbi-



Meistruban etxea herri erdian dago. ARTXIBOA

datzen ditugu dorroubarren". Resanok argitu duenez, jasotako "datuak anonimoak izan dira eta ez dute inolako konpromiso pertsonalik ekarriko".

Inkesta

Dorraoko Kontzejuak sei galdera erantzutera gonbidatu ditu herritarrak. Lehenik, generoa eta adina esateko eskatu du. Horren ondoren, etxebizitzaren tamaina nolakoa izatea nahiko luketen zehazteko eskatzen da; 1 eta 4 logela arteko aukera eskaintzen du inkestak. Etxea alo-

katu edo erostea nahiago luketen ere jarri beharko dute. Gainera, norberaren urteko errentaren berri eman beharko da, horretarako ematen diren bost aukeretak bat markatuz. Azkenik, etxebizitza ohiko bizitegia edo bigarren etxebizitza litzatekeen zehazteko ere eskatu dute.

Etxebizitzari buruzko galde-egia beteta aurkezteko epea asteartean despedituko da. Erantzunak dorraukokontzejua@gmail.com e-posta helbidera bidali daitezke, bestela, Ergoienako udaletxean utzi daitezke.

BETI ZUREKIN

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan
24 orduz izango duzu gure zerbitzua.
Salbuespenik gabe.



bertako
igogailuak | ascensores

www.bertako.eus



ZULORA JAUSITAKO
OBJEKTUAK
BERRESKURATzea



HARRAPATZE
EGOERAK



IGOGAILUKO
ZARATAK



365/24/7

ARABA
945 712 822
GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935
NAFARROA
848 870 917



Marino Ayerra etxegabeen aterpea.

Etxegabeen aterpea mustutzeko eguna

Larunbatean, 12:00etan. Marino Ayerra izena eman dio Altsasuko Udalak. 84,85 m²-ko azalera du. Zortzi pertsonarendako tokia du. Bi gela, bi komun, erabilera anitzeko gela, sukaldea, garbitoki biltegia, zainzaileen gela eta ezkaratza ditu

ALTSASU

Urte pasa erabiltzen ari badira ere, pandemia tarteko, Altsasuko Udalak bihar mustuko du Marino Ayerra etxegabeen aterpea. 1936ko estatu kolpe garaian herrian zegoen apaizaren izena hartu du aterpeak, ahulenen alde egin zuena aitortuz. Altsasun bizi izandakoaren testigantza *No me avergoce del evangelio* liburuan utzi zuen jasoa. Biharko mustutze ekitaldian ezin izanen du haren alaba Teresa Aierri Ballesteros egon, joan den urteko azaroan hil zen. Bai-

na haren alargun Enrique Gonzalez bertan izanen da, baita haien semea eta haren bikotekidea ere.

Kamineroena zen etxebizitza batean dago aterpearen egoitza berria. Eraikina Nafarroako Gobernuarena da, baina Altsasuko Udalarari 20 urte erabiltzeko utzi dio. Erabilera hori bost urteko epeetan luzatu daiteke, gehienez 50 urtera iritsiz. Etxebizitza egokitzeko lanek 108.661 euro (BEZ kanpo) balio izan zuten. Udalak gobernuaren 50.000 euroko dirulaguntza izan zuten.

Udalak ekipamendurako 61.931,43 ordaindu zituen, baina 43.352 euroko dirulaguntza jaso zuen. Altsasuko etxegabeen aterpea 30 urte kaputxinoen komentuko okindegi ikuztegi zaharrean egon zen. Baina azken hogeitau urteetan haren egoera okerrak beste egoitza bat bilatzera bultzatu zuen Altsasuko Udala. Nafarroako Parlamentuko kideak ere bertatik ezagutu zuten haren egoera. Konponketak egin ziren, harik eta 2020an kamineroen etxeetako 16-d blokeko behe solairua hartu arte.

Kronologia laburra

- **1990-01-26** Altsasuko Udalak kaputxinoekin hitzarmena sinatzea erabaki zuen. Etxegabeen aterpea komentuko okindegi ikuztegi zaharrean kokatuko zen. 55 metro karratuko azalera zuen eta egokitzapen lanak aurreko udan despedituta zeuden.
- **1990-04-03** Altsasuko Udalak etxegabeen aterpea zabaldu zuen. Dozena bat pertsonarendako tokia zuen.
- **1990-04-15** Altsasuko Udalak etxegabeen aterpea mustu zuen.
- **2008** Aterpearen egoera tamalgarria zen: zorutik hezetan handia ateratzen zen; itajurak zeuden; atek ez zuten ongi ixten; berogailuak paretan zintzilik zeuden bestela erabiltzaileek arropa lehertzeko erabiltzen zituztelako eta sute arriskua zegoelako. Gainera, sukaldea eta jakien biltegia komentuan zeuden, eta aterpetxea kudeatzen duen pertsonak ezin zuten nahi zuenean erabili.
- **2008** Altsasuko Udalak kamineroen etxe bat egokitzeko lanen memoria egin zuen. 115.000 euroko aurrekontua aurreikusitua zuen.
- **2009-01** Denboraleak kalteak eragin zituen aterpeko teilatuan eta, arriskuagatik, bi geletatik bat itxi behar izan zen. Udal langileek konpondu zuten.
- **2009-04-28** Ekonomia eta Ogasun Batzordean Alvaro Miranda Simavilla Ogasuneko kontseilariak Nafarroako

Parlamentuan esan zuen ez ziola udalari kamineroen etxerik utziko. Udalak bere bitartekoekin konpontzeko eskatu, eta horretan laguntzeko prest agertu zen.

- **2009-06** Aterpea legedira egokitzeko Gizarte Gaietarako Departamentuak udalari emandako 18 hilabeteko epea despeditu zen.
- **2009** 408 erabiltzaile izan zituen aterpeak.
- **2010** Aterpeak eragiten zizkion gastuei aurre egiteko, Altsasuko Udalak eta Gizarte Gaiak Departamentuak hitzarmena sinatu zuten.
- **2012** Aterpeak 397 pertsona hartu zituen.
- **2013** 406 egonaldi egin ziren aterpean.
- **2014-12** Etxegabeendako gosari eta afariak komentuan prestatzen ziren, baina bi fraide besterik ez zirenez gelditzen, aterpean sukaldea prestatzeko 1.827,02 euroko inbertsioa egin zuen udalak.
- **2015-01-01** Altsasuko Udalak onartu ondoren, aterpearen araudia indarrean sartu zen.
- **2015** Aterpean 334 egonaldi egin ziren.
- **2018-03-28** Etxegabeen aterpea kokatzeko Nafarroako Gobernuak kamineroen etxe bat uztea onartu zuen Altsasuko Udalak.
- **2018** Aterpeak 408 erabiltzaile izan zituen.
- **2020-02** Altsasuko Udalaren aterpearen egoitza berria erabiltzen hasi ziren etxegabeak.

Iñigo Aritza ikastolak 50. urteurrena ospatuko du

Ikasturtean hainbat ekintza aurreikusitako dituzte, lehendabizikoa Eñaut Elorrietaren larunbateko kontzertua

ALTSASU

Leire Baztarrika Sanz Iñigo Aritza ikastolako zuzendaria da. Aitortu duenez, "ikasturtea berezia da guretako. 50. urte betetzen ditugu, eta Ikastolak beti egin izan duen bezala, herriari

eskaini nahi dizkiogu gure ikuspegi eta balioak, euskara eta euskal kultura ardatz eta helburu izanik". Zuzendariak gaineratu duenez, "gure ikastolak mende erdia darama bide urratzaile zereginean haziak eraiten;

izan ere, gure lehen pausoak Olatzagutian eman genituen, eta ondoren Altsasun eta Urdiainera zabaldu zen. 50 urte euskara eta euskal kulturaren oinarritutako murgiltze eredu haur eta gaztetxoak hezten". Aitortza egin die sortzaileen: "kooperatibismoaren eskutik, murgiltze ereduaren sustatzen zuten hezkuntza eredu aitzindariaren hazia eraitzen zuten".

Baztarrikak aukera baliatu du "ikastolako komunitatea osatzen dugun familia, familia ohi, lan-



Egitarauko lehen ekitaldia aurkezten.

gile, langile ohi, ikasle eta ikasle ohi, mila zorion" emateko. "Gaur egun, 300 haur eta 200 familia baino gehiagok osatzen dugu ikastolako komunitatea, duela 5 hamarkada gutxi batzuk hasi zuten bidea Burundan errotu denaren seinale", esan du. Urteurren ospakizunetik ikasturtea hartuko dute eta Urdiain, Altsasu, Olatzagutia eta Ziurdian izanen dira. Baztarrikak "herri-tar guztiak gure ospakizunetan parte hartzera eta gurekin gozatzera animatzen ditugu".

Gozamenez programaren eskaintza bueltan da

Programak 20 urte egin ditu sexualitate plural eta anitzaren berri ematen. Ostegunetik aurrera jarduerak

ALTSASU

Gazteen sexualitatea ikuspegi positibo, adeitsu, plural eta aberasgarri batetik lantzea helburu du Gozamenez komunitate programak. Haren bidez gazteak haien sexualitatearen garapenean inplikatu nahi dituzte, ideia murriztaileetatik aldentu eta eskaintzen dituen aukerak bizi ditzaten, horretarako, prozesu pertsonal autonomoak eta harreman pertsonal orekatuak bultzatuz. Azken finean, gazteen bizitzan sexualitateak duen tokia agerian utzi nahi du, gune publiko eta ohikoetan.

Sakanan 2001etik hainbat jarduerak egiten dira urtero. Horretarako, ibarreko Gozamenez batzordea dago, honakoek osatzen dute: Etxarri Aranazko Emakumeari Laguntzeko Zentroko hezitzailea, Altsasuko Gazteria Zerbitzuko teknikaria, hiru Gizarte Zerbitzuetako Prebentzio teknikariak. Haiei guztiei aurten batu zaizkie Sakanako Mankomunitatearen Kirol, Berdintasun eta Anitzartearen teknikariak.

Gozamenez sexualitatearen hainbat alderdiri buruzko hausnarketa eta eztabaida sustatu nahi du gazteen artean, eta gazteen eta haien bitartekarien artean; familia, ikastetxea, komunikabideak, ... gizartea, finean. Beti, gazteen sexualitatea ikuspegi positibo, adeitsu, anitz eta aberasgarria lantzeko helburuarekin. Horretarako, aurten ere, egitaraua prestatu dute.

Egitaraua

Lastailak 28, osteguna

- **10:30** 'Trans-formatzen' dokumentala, testigantzak eta eztabaida, lortia kultur gunean. DBH3ko ikasleendako.

Lastailak 28-azaroak 28

- **Arratsaldetan**, Sexualitatea erakusketa, gazte gunean. Altsasuko DBHko 3ko ikasleek egindakoa.

Azaroak 5, ostirala

- **22:00** 'Cabaret de antojo', Arkagoa kalean. 16 urtetik gorakoendako. Estefania de Paz Asin, Jokin gitarrak lagunduta.

Azaroak 12, ostirala

- **17:30-20:30** Gozamenez kutxa tailerra, gazte gunean. 12 eta 17 urte artekoendako.

Azaroak 19, ostirala

- **18:00** Busti aniztasunez, bizi gozamenez film laburrak eta foruma, gazte gunean. 12 eta 17 urte artekoendako.

Azaroak 26, ostirala

- **18:00** Erakusketako edukiei buruzko eztabaida eta dastatzea.

Bidelagun izateko boluntario bila dabilta

Udaberrian martxan jarritako 'Bidelagun' programari segida eman nahi diote. Olaztiar heldu edo gazte bat Lehen Hezkuntzako bina ikaslerekin elkartu nahi dituzte, astean behin aisia partekatuzko

OLATZAGUTIA

Burunda mendebaldeko Oinarriko Gizarte Zerbitzuak, Sakanako Mankomunitateko Anitzartearen kulturartekotasun zerbitzua, Olatzagutiko alkatea, udal ludotekaria eta eskola dira Olatzagutiko Elkartasun Sarea. Haren ekimenez *Bidelagun* proiektua gauzatu dute, udaberrian martxan jarri zutena.

Anitzartearen teknikari Begoña Zestau Baraibarrek azaldu du zertan datzan proiektua: "Olatzagutiko gazte boluntarioak, bertako Lehen Hezkuntzako ikasleekin bikoteak sortu eta aisia partekatzea astero". Zestauk azaldu duenez, hainbat helburu dituzte: eskolatik kanpo euskararen erabilera indartzea, herriko toki edo txokoak elkarrekin ezagutzea, olaztiarrak elkar ezagutzea bulkatu, boluntarioak txikien erreferente bihurtzea eta jendartearen egon daitezkeen zurrumurruei eustea ahal dela.

Balorazioa

Zestauk azaldu duenez, *Bidelagun* egitasmoa martxan egon den hiru hilabeteetan zortzi boluntario beste horrenbeste ikaslerekin elkartu dira astero, ordu bat edo bi. Aurretik, boluntarioek hainbat arlotan prestatutzatza jaso dute, esate bate-



Olaztiarrak San Migel plazan. ARTXIBOIA

rako: entzumen aktiboa, datuen babesa, kulturartekotasuna eta zurrumurrak indargabetezko estrategiak. Jarduerak iraun duen bitartean aseguruia izan dute gainera.

Lehen esperientziaren "oso balorazio baikorra" egin dute Elkartasun Sareko kideek. Horrek eta "hobetzeko" jaso dituzten proposamen ugariak bultzatu dituzte programarekin aurrera segitzea. Horretarako, bidelagun izanen diren boluntario olaztiarrak behar dituzte, heldu edo gazte. Ikasturte honetan,

hala ere, berritasunak izanen dira, Zestauk jakinarazi duenez: "esperientziatik ikasi eta hobetze aldera, oraingoan, boluntario bat bi ikaslerekin elkartuko da, eta ez batekin. Horrek aisia lantzea erraztuko duela uste dugu. Gainera, bidelagunek ludoteka erabiltzeko aukera izanen dute".

Bidelagun izateko honako telefono edota posta helbideetara jo: 699 635 187 edo kultura@olazti.com (Virginia), 616 841 995 edo eirizar@ssbaltsasu.eus (Eneka) eta 648 070 710 edo anitzarte@sakana-mank.eus (Begoña).



ALTSASU

Azaroak 1, astelehena. 17:30ean, lortia Kultur gunean

Eneko Fernandez Maritxalar, Erika Lagoma Pombar, Xabat Illarregi Marzol, Ekhiñe Zapiain Arlegi, Endika Legarra Nuin eta Oier Lakuntza Irigoien

Gai-jartzailea: Fernando Anbustegi Gorfi

BERRIOZAR

Azaroak 6, larunbat. 17:30ean, Entzunaretoan

Eneko Lazkoz Fernandez, Saioa Alkaiza Guallar, Josu Sanjurjo Altzuri, Alazne Untxalo Erregerena, Mikel Lasarte Cia eta Patxi Castillo Graciarena

Gai-jartzailea: Maialen Belarra Erieterreaga

LEITZA

Azaroak 14, igandea. 17:30ean, Herri Aretoan

Joanes Illarregi Marzol, Julio Soto Ezkurdia, Sarai Robles Vitas, Xabier Silveira Etxeberria, Julen Zelaieta Iriarte eta Iker Gorosterrazu Elizagoien

Gai-jartzailea: Ainhoa Larretxea Agirre

Nafarroako
Bertsolari Txapelketa 2021
Finalurrekoak

Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian salgai
www.bertsozale.eus

Antolatzailea



Laguntzailea



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 22

ALTSASU Gazte agenda: Birziklapena.
17:00etatik aurrera, Intxostiapunta gazte gunean.

ZIORDIA Sugarren mende
Asisko Urmenetaren liburuaren aurkezpena eta hitzaldia.
18:30ean, liburutegian.

ERROTZ El Pobal eta Muñatones, kontestu historikoa hitzaldia.
Hizlaria: Juanxo Madariaga.
19:00etan, herriko etxean.

LAKUNTZA Lakuntzeko auskias akordetzen yeiz?
Mintzapraktika.
19:00etan, udaletxean.

LARUNBATA 23

ERROTZ El Pobal burdinolara,

Arboledara eta Muñatones gaztelura bisita.
Arakilgo Udalak antolatuta.
08:30etik aurrera, plazatik.

ARBIZU Eskola zaharrei buruzko batzarra.
11:00etatik 13:00etara, eskola zaharretan.

ALTSASU Marino Ayerra etxerik gabeko pertsonendako aterpearen mustutzea.
12:00etan, Iruñeko etorbidean.

ARRUAZU Estrategia planari buruzko batzar irekia.
17:00etan, elkartearen atzeko zelaian.

ETXARRI ARANATZ Ilargiaren atzean familiarteko antzerkia.
17:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Gazteendako Escape Room-a.

Antolatzailea: Sakanako Gizarte Zerbitzuak.
18:00etan, 19:30ean eta 21:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Tailerra: Mikologian hastapenak. Genero arruntenak.
18:00etatik 19:30era, Gure Etxea eraikinean.

ALTSASU Iñigo Aritza ikastolaren 50. urteurrenaren emanaldia: Eñaut Elorrietaren Irteera Argiak kontzertua.
18:00etan, Iortia kultur gunean.

OLAZTI Benditas. Todo viene del cielo El mono habitado konpainiaren antzezlanak.
19:00etan, kultur etxean.

IGANDEA 24

ALTSASU Lizarrusti – Lareo – Sarastarri – Leitzardi ibilbidea egingo du Altsasuko Mendigoizaleak taldeak.
08:00etan, egoitza.

BAKAIKU Gaztaina mozte eguna.
09:30ean, plazan.

IRAÑETA Sakanako Herri Kirol eguna.
Sakanako Mankomunitateak antolatuta.
11:30ean, plazan.

ARRUAZU Bizipoza! Euskal Herriko Txistulari Elkartearen kontzertua. Lactutxiki eta Pontxarekin.
Lacturalek antolatuta.
12:30ean, plazan (eguraldi txarrarekin herriko etxean).

ALTSASU Oilar bat dago zure teilatuan txotxongilo ikuskizuna.



ALTSASU X. Arte Azoka.
Azaroaren 4ra arte. Asteleheneretik ostiralera 17:30etik 20:00etara eta igandetan 16:30etik 19:30era. Iortia kultur gunearen erakusketa gelan.

17:00etan, Iortia kultur gunean.

ASTELEHENA 25

ALTSASU Pentsio duinen aldeko mobilizazioa. Bankuetan aurrez aurreko arreta zerbitzua eskatzeko ibilaldia.
12:00etan, udaletxearen paretik Erkuden kaleko bankuetxeetara.

ASTEARTEA 26

OLAZTI Sormen tailerra: Liburu bat egingo dugu.
Antolatzailea: Sakanako Mankomunitateak.
17:00etatik 18:30era, ludotekan.

ASTEAZKENA 27

ALTSASU Aurkezpena: Altsasuko ahozko ondarea. Labrit multimediarren eskutik. Altsasuko Udalak antolatuta.
17:00etan, Iortia kultur gunean.

ALTSASU Kafe konpondu.
Izen ematea: 630900336 edo sakana@cederna.es.
17:30etik 19:30era, Gure Etxean.

IRURTZUN Nekazari

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Maixabel gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Ostirala 22: 19:00
Igandea 24: 19:30 (sarrerak agortuta)

Madres paralelas gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 26: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

Las cosas que decimos, las cosas que hacemos zineforum filmaren emanaldia
Igandea 24: 19:30

Damas de hierro zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 28: 19:00

gazteentzako eta inbertsiorako laguntzak ezagutzeko eta ekoizpen ekologikoaren belaunaldien erreleboari buruzko hitzaldia.
18:00etan, kultur etxeko areto nagusian.

OSTEGUNA 28

IZURDIAGA Bizi Arakil parte hartze prozesua. Parte hartze saio irekia.
18:00etatik 20:00etara, elkartean.

C.A. OSASUNA
GRANADA C.F.

URRIAK 22, OSTIRALA
21:00-23:00
(IRRATIKO KONEXIOA 20:45EAN)

EUSKALERRIA
IRRATIAREN BIDEZ

euskalerrairratia

beleixe 107.3 FM

ZUZENEAN

948 567 074 | IRRATIA@BELEIXE.EUS

DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com
www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZAK

Tabernarako zerbitzaria behar da: Asteburuetan eta parranda egunetan lan egiteko. Euskalduna eta aritua. Deitu 948 461 228.

Sakanako Mankomunitateko kirol monitore, entrenatzaile eta aurkezle euskaldunen lan postea: 18 urte beteak izatea, euskalduna izatea et oinarriko kirol titulazioa izatea derrigorrezkoak dira. Izena eman kirolak@sakana-mank.com postara idatziz edo 948 464 866 telefonora deituz

HIGIEZINAK

SALDU

Lakuntzako Udalaren enkante bidezko salmenta: Uriz kaleko bi partzela salgai, lizitazio-iragarkia irailaren 30eko NAO 229- zenbakian argitaratu da. Proposamenak urriaren 28ra arte egin daitezke.

LEHIAKETA

Kameratoia ikus-entzunezko rallya: 18-35 urte bitarteko gazteei zuzendua, gehienez 6 kideko taldeetan parte har daiteke. Erroka? 36 ordutan antolakuntzak egunean bertan emandako gai eta baldintzen arabera laborerak sortzea. Sariak: 800 euro irabazlearentzat, 400 euro bigarren sailkatuarentzat. Izena emateko epea azaroaren 7an amaitzen da.

OHARRAK

Odol emateak Arbizun: Urriaren 25ean, 17:00etatik 20:30ra. Animatek.

Lakuntzako Udalak kontribuzioa ordaintzeko:

Aurtengo bigarren seihi-labeteko kontribuzio zerga ordaindu nahi dutenak eta helbideratuta ez dutenak aukera izanen da Lakuntzako bankeketan udalak dituen kontuetan azaroaren 15era arte. Helbideratuta dutenei azaroaren kibratuko zaie kontutik.

Etxarri Aranazko Udalak egoera ahulean dauden ikasleentzako dirulaguntza: Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartu ahal izateko, 2021-2022 ikasturteko neguko jardueretarako, eskabideak aurkezteko epea 2022ko urtarrilaren 20an amaitzen da.

Etxarri Aranazko Udalak entitateendako dirulaguntza deialdia: Kultur, kirol eta jendarte erakundeek eskaerak abenduaren 31ko 14:00ak arte aurkez ditzakete. Ikasturte honetan garatuko dituzten jarduerak dira diruz lagunduko direnak. Oinarriak udalean bertan edo www.etxarriaranatz.eus web orrian ikus daitezke.

Etxarri Aranazko Udalaren oharra: 2021eko 1. seihi-labeteko ura ordaintzeko borondatezko epea aurtengo azaroaren 4an bukatuko da. Ordainketak helbideratuta ditzutenei, azaroaren 4an kargatuko zaie beren kontuetan eta gainerakoek herriko banketxe batean ordaindu beharko dute. Helbideraketa berriak edo aldatutako eskatze azkeneko eguna urriaren 28a izango da.

Etxarri Aranazko Udalak 0-2 urteko haurrek Katukan eskolaratzeko dirulaguntza: Eskabideak aurkezteko epea 2021eko azaroaren 8an amaituko da.

Irurtzunen euskara ikasteko dirulaguntzen deialdia: 2020ko irailetik 2021eko abuztura egindako euskarazko edozein ikastaro motetara bideratuta. 16 urtetik gorantz izatea eta Irurtzunen errodatuak egotea derrigorrezkoa da. Eskaerak udaletxeko erregistroan aurkeztuko dira 2021eko urriaren 31a arte. Epea luzeazina izanen da. Informazio gehiago udaletxean bertan galdetuz.

Sakandarrendako COVID-19 txertaketa aukera: Osasun Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi du urriaren zehar txertoa jartzeko aukera: Eremita bakoitzeko osasun zentroetan, txertaketa jarraitzea osatu ez duten pertsonak. Nahi duten pertsonak ere txertoa hitzordurik gabe jasotzeko aukera izango dute: urriak 8 eta 22, ostiralean, Irurtzuno Osasun Zentroan eta urriak 15 eta 29, ostiralean, Altsasuko Osasun Zentroan.

Nafarroa Oinez lagundua: Lizarrara joan ezin izan zutenek eta Lizarra lkas-tola lagundu nahi dutenek horretarako aukera dute "Nafarroa Oinez Fundazioa / 03259" Bizum kontuaren bidez edo www.nafarroaonez.eus web orriaren bidez.

Irurtzuno konpartsa: Erraldoiak dantzatzeko jende premia dago Irurtzunen. Interesa duenak hots egin dezala 690 335 196 (Amalia) telefono zenbakira.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburrak.eus

OROIGARRIA

Mikel Apaolaza Mendia
III. urteurrena

Maitatzen dena ez da inoiz ahazten


JAIOTZAK

- **Alai Leza Vera**, urriaren 7an Altsasun
- **Aiur Claver Mazkianan**, urriaren 8an Altsasun
- **Iker Ochoa Zamora**, urriaren 9an Etxarriren
- **Soxna Adama Ndiaye**, urriaren 13an Irurtzunen

EZKONTZAK

- **Irene Katarain Razkin eta Miguel Angel Asurabarrena Barado**, urriaren 18an Lakuntzan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

Hemen eta online 

iragarki laburrak .eus



IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo.eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€ prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek %10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

MENDIA Sakanako Mendizaleak Arabako Errioxara

Sakanako Mendizaleak taldeak igandean urriko txangoa egingo du. Arabako Errioxara joko dute, Laguardia eta Lagran arteko mendi martxa egitera. Autobusa goizeko 6:00etan aterako da Irurtzundik eta izena eman duten mendizaleak herriz herri hartuko ditu. Tokia egonez gero, 639 11 76 31 telefonora deitu daiteke izena emateko.

FUTBOLA Arakilgo Zaldia futbol taldea bueltan da

Elomendiko Futbol Liga bueltan da, eta bertan lehiatzen ari diren 12 taldeen artean Zaldia talde arakilgarra dago. Asteburuan ligako 3. jardunaldia jokatu zen, eta Zaldia bigarren garaipena lortu zuen jarraian, 1 eta 3 irabazi baitzion Unzitiri. Aurreko partidari, ligako 2. jardunaldian, Zaldia 6 eta 0 hartu zuen mendean Bidezarra, eta 1. jardunaldian jokatu beharreko partida, aldiz, atzeratzea erabaki zuten. Elomendi da izen bereko txapelketako lider (9 puntu) eta Zaldia hirugarren (6 puntu). Asteburuan 6 punturekin sailkapenean laugarren den Bar Poukas izango du aurkari Zaldia, Lizasoainen.

ARETO FUTBOLA Aralar Mendi vs Universidad eta Xota vs Anaitasuna

Erriberatik esku hutsik itzuli ziren 3. mailan dabilzan bi talde sakandarrak. Aralar Mendik Ribera de Navarra liderra estutzea lortu zuen, baina azkenean 5 eta 1 gailendu zen Tuterako taldea. Xota ere ongi aritu zen Cintruenigoko Garbayo Chiviteren kontra, baina Erriberako taldeak irabazi zuen (3 eta 1). Sailkapenean Aralar Mendi zortzigarren da (4 puntu) eta Xota hamabigarren, punturik gabe. Gaur, ostirala, Aralar Mendik sailkapenean bigarren den Universidad de Navarra hartuko du, 19:00etan, eta Xotak hamabigarren den Anaitasunaren kontra jokatu du, igandean, 12:00etan Atakondan.



Sakanako Herri Kirol Eguna azken edizioa Arruazuk hartu zuen, 2019ko maiatzaren 5ean. ARTXIBOA

Irañetak Sakanako Herri Kirol Eguna hartuko du

HERRI KIROLAK Joan den urteko etenaldiaren ondotik, igandean, 11:30etik aurrera, Sakanako aizkolariek, trontzalariek, Sakanako Aizkora Eskolako ikasleek eta Sakanako Harri Jasotze Eskolako ikasleek herri kirol erakustaldia egingo dute

Maider Betelu Ganboa IRAÑETA

Igandea herri kirol munduko aspaldiko lagun eta ezagunak topatzeko eguna izango da. Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatuta, Irañetak Sakanako Herri Kirol Eguna hartuko du 11:30etik aurrera. Pandemiagatik joan zen urtean ezinezkoa izan zen herri kirolarien festa antolatzea, baina aurten bueltan dira gure herri kirolariak, gogotsu.

Azken egunotan eguna behar bezala antolatzen ibili da Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitia Uriarte. Horretarako Irañetak Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren babesarekin, eta batez ere Sakanako herri kirolarien

laguntza ordainezina izan du. Zein aizkolarik hartuko duten parte, Sakanako Aizkora Eskolako zein kide aterako diren Irañetako plazara, Sakanako Harri Jasotze Eskolako prest ote dauden, trontza erakustaldirik egongo ote den... azken unera arte ibiliko dira igandeko egitaraua ontzen. Eta azken orduko aldaketak egon daitezke. "Jesus Mari Arzak aipatu dit hasiera batean zein lau aizkolarik egingo duten erakustaldia. Juanito Erdoziarekin ere hitz egin dut, Sakanako Aizkora Eskolako zein kide ariko diren galdetzeko, eta horretaz gain atzera ere Erdoziatarren hiru belaunaldik erakustaldia egingo

dutela esan dit. Sakanako Harri Jasotze Eskolatik Mikel Lasarte Artola monitorearekin ere zehaztu beharrekoak zehaztu ditugu, eta, bukatzeko, trontza erakustaldia egingo du Andra Mari ikastolako laukote batek" aipatu du teknikariak. Joan den urtean, pandemia dela eta, ez zen Nafarroako Herri Kirol Jokoen Txapelketarik jokatu, eta horregatik Inigo Arizta eta Andra Mariko herri kirol proba konbinatuetakoa ez daude behar bezala egituratuta.

Sakanako eskolak

Sakanako Harri Jasotze Eskola azaroan hasiko da, Irurtzunen. Mikel Lasarte Artola monito-

Herri kirolariak

Igandeko Irañetako erakustaldiko partaideak

Aizkolariek

Arkaitz Jauregi, Juanjo Erdozia, Iban Resano eta Goizeder Beltza. Erdoziatarrek, hiru belaunaldiak.

Sakanako Aizkora Eskola

Jon eta Ekai Erdozia Gonzalez de Pedroso, Aritz, Eñaut eta Urko Oiarbide Erdozia, Joan Goikoetxea Agirre, Amets Aristizabal Vicente eta Iraide Bergara Mundiñano.

Sakanako Harri Jasotze

Eskola
Mikel Lasarte Artola eta Alvaro Zugarrondo.

Trontzalariek

Amaia Razkin, Amets Allam, Maia Jimenez eta Maddi Beltza (Andra Mari ikastola).

rearen esanetara, 4 kide trebatuko dira asteartero, ekainera arte. Oraindik ere izena eman daiteke, Mank-eko Kirol Zerbitzuan. Bestalde, Sakanako Aizkora Eskola aurten ekainean egin zen, ez ohiko datan, baina datorren urtean bere ohiko data eta ordutegia izanen du: otsaila edo martxo hasieratik ekainera. "Harrera ona izaten du Sakanako Aizkora Eskolak, beti betetzen dira dauden tokiak. Gehienez 15 ikasle hartzen dira, 20 urtetik beherakoak, bestela gehiegizkoa litzateke monitoreendako, Juanito eta Miguel Angel Erdoziarendako, 15 ikaslerekin ere nahikoa lan egiten baitute. Urtero betetzen dira tokiak" nabarmendu Amaia Gerrikagoitiak.

Igandean eskoletan egiten diren lanaren fruituak ikusteko aukera izango da Irañetan.

1. AUTONOMIKOA GIZON.

8. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Muskaria - Lagun Artea 0-2

SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO 1. MULTZOA

1 Lerinés 16
7 Lagun Artea 8

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

16:30 Lagun Artea - Erriberri (Zelai Berri)

Lagun Arteak Erriberri hartuko du

Erriberriren kontrako partidari sailkapeneko postuak daude jokoan.

1. AUTONOMIKOA EMAK.

6. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Mutilbera B 2-3

SAILKAPENA

1. AUTONOMIKOKO EMAK. 2. MULTZOA

1 Mulier 18
10 Altsasu 0

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:45 Altsasu - Oberena (Dantzaleku)

Altsasuk itxura hobea eman zuen

Mutilberaren kontra hobe aritu zen Altsasu. Ea Oberenaren kontra hala jarraitzen duen.

FUTBOL PREFERENTEA

6. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Etxarri Aranatz - San Miguel 0-0

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Injerto 16
11 Etxarri Aranatz 8

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

17:30 San Andres - Etxarri (Lizarra)

San Andresen kontra, Lizarran

Etxarri San Miguel bigarrenari ongi eutsi zion, eta orain San Andres du aurkari.

FUTBOL ERREGIONALA

5. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Rotxapea B - Altsasu 2-1

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 3. MULTZOA

1 Rotxapea B 13
4 Altsasu 9

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

15:30 Altsasu - Amaya (Dantzaleku)

Altsasu, liderraren kontra ezin

Altsasuk lehen partida galdu zuen, liderraren kontra. Etzi Amaya hartuko du.



Ander Erice Hiru Haundien helmugan, Araian, hornidura guneetan lagundu zuen lehengusua besarkatzen. UTZITAKOIA

"Hiru Haundietako emaitzak poztu nau gehien"

ANDER ERICE TORNARIA SAKANA BIZIRIK TALDEKO MENDI KORRIKALARIA

MENDI LASTERKETAK Hiru Haundiak ultra trailean hirugarrena sailkatu zen ekainetik Arbizon "oso gustura" bizi den Sakana Bizirik taldeko mendi korrikalaria

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU

Sekulako denboraldia egin du Ander Erice Tornariak. Uztailen bigarren sailkatu zen BUTS -eko (Basque Ultra Trail Series) 2. etapan, Gasteiz-Iruñean (130 km), irailean bigarren Ultra Trail Montaña Palentinan (74 km) eta urriaren hasieran hirugarrena Hiru Haundietan (101 km). **Barañaindik Arbizura etorri zara bizitzera.**

Neska lagunak Gasteizen lan egiten du eta nik Ultzaman, eta erdibideko herri batera etorri

nahi genuen. Udak eta asteburuak Madotzen pasa izan ditut beti, eta Larraun eta Sakana oso gustuko ditut. Sakana Bizirik mendi lasterketa taldean 8 urte inguru daramatzat, eta taldekideak ezagutzen ditut. Hain zuzen ere,

"ARALAR ETA BERIAIN ENTRENATZEKO GOZAMEN HUTSA DIRA. BETI HEMEN ENTRENATU IZAN DUT"

Alatz Agirrek aipatu zidan Arbizon etxe bat salgai zegoela. Hura erosi eta hona etorri ginen, eta, oso gustura gaude.

Sakanarekiko lotura aspaldikoa da. Mendi lasterketetan Gorka Santesteban etxarrendarraren bitartez hasi nintzen. Hasieran mendi martxak egiten nituen, baina Gorkak mendian korrika hastera tentatu ninduen, duela 9 urte inguru. Sakana Bizirik taldea sortu zenean Gorkak galdetu zidan ea eurekin hasi nahi ote nuen, eta Sakanan gehien

entrenatzen dugunez, ez nuen zalantzarik izan. Aralar eta Beriain entrenatzeko gozamen hutsa dira.

Maila bikaina eman duzu ultra trailletan. Agerikoa da distantzia luzetan hobeki moldatzen zarela.

Ultra Trailak gustukoago ditut eta hobeki moldatzen naiz. Nik urtea horrela planteatzen dut: denboraldi hasieran lauzpabost mendi maratoki erdi inguru egiten ditut, txispa hartzeko, eta gero luzeagoekin hasten naiz. Leitzako Erronka (67 km) oso gustuko dudana proba da. Eta gero ultra trailak egiten ditut. Aurten hiru egin ditut eta oso pozik nago egindakoarekin.

Bi bigarren postu eta hirugarren bat. Kaxoi gorenera igotzea da falta zaizun bakarra.

Bai, hori da (kar, kar...).

Zein emaitzak poztu zintuen gehien?

Hiru Haundikoak, nire bizitzan egin nuen lehendabiziko ultra traila Hiru Haundiak izan zelako, 2014an. Gorbeia, Anboto eta Aizkorri lotzea eta 100 kilometro egitea sekulakoa iruditzen zitzaidan, oso handia. 14 ordu eta erdi behar izan nituen, eta uste dut lasterketa bat bukatzerakoan sentitutako pozik handiena egun horretakoa izan zela. 2016ko edizioa 13 ordu eta 15 minututan bukatu nuen, eta aurten 12 ordutan egitea aurreikusten nuen. Azkenean denbora jaitsi nuen (11:44:28), eta hirugarren sailkatu nintzen. Oso pozik.

Horren ongi aritzea espero al zenuen?

Lasterketa luze batean denetatik gerta daiteke: urdailean arazoak izan, kalanbreak... Nik lehen urdailean arazo asko nituen, baina orain badakit zerk egiten didan ongi eta zer ez dudana hartu behar. Ultra trailletan oso gutxi jaten dut, soilik behar beharrezkoa dena, urdailak ahalik eta gutxien lan egin dezan. Bestalde, esperientziarekin behar bezala entrenatzen eta atsedean hartzen ikasten duzu. Aurten oso ongi ikusten nuen nire burua, BUTS-en eta Palentinan lasterketa onak egin nituen, baina, hala eta guztiz ere, ez dakizu gauzak nola aterako diren. Espektatiba gehiegi izatea

"GAUZA ASKO ALDE BATERA UZTEN DITUGUNEZ, EMAITZAK DAUDENEAN GEHIAGO BALORATZEN DITUGU"

ez da ona, edozein arazoren aurrean behera egin dezakezulako. Ni nire lasterketa egitera ateratzen naiz, ahalik eta denbora onena egitera, eta postu ona lortzen badut, hobe.

Baina aurrean zeundela bazenekien.

Bai. Fresko nengoen, eta Gorbeia lehendabizi igo nuen. Boskote bat geunden buruan, baina Julen Martinez de Estibarizek ihes egin zuen. Euskal Selektziokoa da, makina hutsa, eta bera izan zen txapeladuna (11:13:30). Atzean laukotea geratu ginen. Orisolen ongi ikusi nuen nire burua eta aurrera egin nuen, baina 80. kilometro inguruan atzetik zetorren Aser Arzak aurreratu ninduen eta bigarren iritsi zen Araiaiko helmugara (11:36:14). Montaña Palentinan ezagutu nuen Aser, berak irabazi ninduelako. Ni iritsi nintzen hirugarren Araiaara (11:44:28). Honetan ordu asko sartzen ditugu eta gauza asko alde batera uzten ditugu; beraz, emaitzak daudenean gehiago baloratzen ditugu. **BUTS-eko (Basque Ultra Trail Series) 2. etapa, Gasteiz eta Iruñea artekoa, berezia izango zen.**

Bai, oso berezia. Hasieran ez nuen horren polita izango zenik pentsatzen. 130 kilometrotan 6.000 metroko desnibela du. Gorabeheratsua da, baina nahiko laua, eta ongi zetorkidan. Urbasa gurutzatu, Beriain Unanitik igo, Ollo, Iruñea... oso polita izan zen. Bigarren sailkatu nintzen (16:32:29), Owen Davies irabazletik ordu erdira (16:02:08).

Zeintzuk dira hurrengo erronkak?

Bikotearekin -Arantzazu Perez de Arenaza- Rigloseko Trailean parte hartuko dugu abenduaren 12an. 2019an bigarren izan nintzen proba horretan, eta bigarren Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketan. Arantzazuk ere gustukoago ditu proba luzeak; 2016an bigarren sailkatu zen Hiru Haundietan. 2018an elkarrekin aritu ginen Baigorriko Euskal Trailean (130 km), eta bikote mistoetako txapelketa irabazi genuen. Bestalde, 2022 urteari begira, BUTS-eko 3. etapa egin nahiko nuke maiatzean, Iruñea eta Donostia artekoa (120 km), aitaren herritik, Larunbetik, pasatzen delako; uztailaren hasieran Ehunmilak egiteko asmoa dut, eta Montblanceko Ultraren parte hartu ahal izateko dortsala lortzen saiatuko naiz. 2016an egin nuen, baina berriro probatu nahiko nuke.



Sakanako Bizikleta Eguneko parte hartzaileak, Urdiainen azken txanpari ekiteko prest. Aurrean, Barranka, Burunda eta Aralar Txirringularitza taldekoak.

Bizikleta egun handia

TXIRRINDULARITZA 27. Sakanako Bizikleta Eguna indartsu itzuli zen eta izena eman zuten 360 sakandarrek eta bidean batu zitzaizkien Irurtzun eta Altsasu lotu zituzten, primerako giroan. Urtetik urtera Bizikleta Eguna sendotzen ari da

Erredakzioa SAKANA

Beste behin, oso arrakastatsua izan zen 27. Sakanako Bizikleta Eguna. Urtetik urtera egonkortzen ari den ekimena da, askorendako, egutegian gorritz markatzeko data.

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatzen du Bizikleta eguna, Barranka, Burunda eta Aralar txirringularitza klubekin elkarlanean eta zenbait babesleren laguntzarekin. Aurtan Aralar taldekoei zegokien ibilbidea zabaltzen zuen autoa gidatzea –urtero Burundakoekin txandakatzen dira–, eta ibilbide guztia behar bezala kontrolatzen, bide gurutzak ixten eta ezinbestekoak diren beste horrenbeste lan egiten aritu ziren Barranka Txirringularitza Taldekoak. DYaren furgoneta batek eta Foruzainek jarraitu zuten Irurtzunen 9:00etan hasi eta Altsa-

sura 13:15 aldera iritsi zen ibilbidea, parte hartzaileen segurtasuna bermatzeko, eta baita antolakuntzaren autobusak eta kamioiak ere, norbaitek bidea utzi nahi bazuen bizikleta gorde eta autobusera igotzeko. Bizikletetako matxurak konpontzen Ciclos Muruzabaleko Joxi Lazkoz aritu zen.

Hamaiketako egitera Lakuntzako plazan gelditu ziren. Antolakuntzak freskagarria banatu zuen, eta nork bere jatekoa zuen. Merezitako txokolate palmera jaten zeuden Ioar Oroz Romero eta Aratz Sanzol Lumberras. Bata urdiaindarra eta altsasuarra bestea. Euren aitekin osatu zuten bidea. "Irurtzundik atera gara eta ongi iritsi gara Lakuntzara. Orain Altsasuraino heltzeko asmoa dugu" zioten, palmerari koska egiten zioten bitartean. Eta baita lortu ere.

Sakana guztiko jendea animatu zen. Asko, familian, gurditxo txikian zioan neskatila barne, eta besteak gaztetxoek kuadrillak eta helduak. Eguraldiak eutsi zion, eta inolako arazorik gabe iritsi ziren Altsasura, 31 kilometro eder osatu eta gero. "Helmugara guztiak batera sartzea oso polita da, askorendako lortutako erronka" aipatu zuten Barranka taldekoek. Foru plaza bizikleten plaza bilakatu zen.

Mank-eko Kirol Zerbitzuko teknikari Amaia Gerrikagoitiak Sakanako Bizikleta Egunaren balorazio ezin hobea egin du. "Oso ongi joan zen eguna. Ehunka pertsonen parte hartu zuten, norbera bere ahalmenen arabera. Jendea oso pozik zegoen, eta Bizikleta Eguna dagoen bezala ongi dagoela aipatu zuten, horrela jarraitu beharra duela. Egunak osasun bikaina du" dio.



Gazteek eta helduek, guztiek bikain pasa zuten.



Txirringulariak, Urdiainera bidean. Eguraldiak eutsi zion, eta bizikletan ibiltzeko eguraldi aproposa



Hamaiketakoa eta gero, Lakuntzatik ateratzen.



Gaztetxoak oso pozik zeuden.



Ioar Oroz eta Aratz Sanzol.



Txirrindulariek Altsasuko plaza bete zuten.



egin zuen.

Joseba Ezkurdia, konfiantza sendotzera

PILOTA Lau eta Erdiko ligaxkako 3. jardunaldian igandean Joseba Ezkurdiak eta Erik Jakak Astelenan jokatu duten partida ez da erabakigarria izango, arbizuarra finalerdietara sailkatu delako eta lizartzarra aukerarik gabe dagoelako

Maider Betelu Ganboa ARBIZU

Astelehenean, Lau eta Erdiko ligaxkako 2. jardunaldia itxi zuen partidaren, Unai Lasok 22 eta 8 irabazi zion Erik Jakari eta kaiolako B multzoa erdi erabakita geratu zen: Joseba Ezkurdia zuzenean sailkatu zen finalerdietara, orain arte jokatuako bi jardunaldiak irabazita, eta Erik Jaka aukerarik gabe geratu zen, bi jardunaldiak galdu eta gero. Finalerdietako beste hautagaia Unai Lasok eta Mikel Urrutikoetxeak gaur, ostirala, Zallan jokatu duten partidatik aterako da. Beraz, Ezkurdiak eta Jakak igandean Eibarren jokatu duten partida ez da erabakigarria izango.

Arantza kendu

Hala ere, Ezkurdiak orain arteko sentazio onei eutsi nahi die eta igandean Erik Jakaren kontra irabaztera aterako da, joan den urtean Jakak finalerdietan kanporatu zuela kontuan hartuta, are gehiago. Arantza hori kendu nahi du arbizuarrak. Bestalde, Erik Jaka aurreko urteko finalista izan zen –Altunaren kontra galdu zuen finala– eta aurtengo denboraldia, bederen, garaipen batekin despeditu nahi du. Beraz, partida lehiatua izango dela ez dago zalantzarik.

Finalerdietara begira

Biek asteazkenean aukeratu zuten igandeko ligaxkako partidako materiala. Ezkurdiak aitortu zuen aste honetan lan fisikoa handitu duela, finalerdia prestatzeari begira, baina, nahiz eta finalerdietarako sailkatuta egon, igandean Jakaren kontra “partida serioa” egin nahi duela nabarmendu zuen. “Igandean Eibarren partida serioa egin nahi dut, konfiantza sendotu eta sentazio positiboak eusteko” azaldu zuen. Arbizuako Altuna III.aren eta Bengoetxea VI.aren asteleheneko partidako irabaz-



Erik Jaka eta Joseba Ezkurdia, igandeko materiala aukeratu eta gero. ASPEPELOTA.EUS

"IGANDEAN PARTIDA SERIOA EGIN NAHI DUT, SENTAZIO POSITIBOAK EUSTEKO" JOSEBA EZKURDIA

lea izango du arerio finalerdietan. “Biak ala biak arerio latzak dira, joko agresiboa egiten dutelako. Hortaz, finalerdi zaila dut aurretik. Baina niretako Jokin Altuna faboritua da” azaldu zuen.

Beste multzoa

Lau eta Erdiko beste multzoan, A multzoan, egora antzekoa da. Altuna, Elordi, Peio Etxeberria eta Bengoetxea daude multzo honetan, eta Peio Etxeberria izan da finena, bi partidak irabazi baititu. Kontrako aldean dago Aitor Elordi, jokatuako bi partidak galdu. Hortaz, biek larunbatean Labriten jokatu duten partida, ligaxkako hirugarrena, ez da erabakigarria izango, Peio Etxeberriak dagoeneko finalerdietarako txartela lortu duelako eta Elordik aukerarik ez duelako. Finalerdietako

beste hautagaia Altunak eta Bengoetxeak astelehenean, urriaren 25ean Tolosako Beotibarren jokatu duten partidatik aterako da.

Joanes Bakaikoa, irabaztera

Promozioko Lau eta Erdiko Txapelketa ongi hasi zuen Joanes Bakaikoa. Belauneko lesioa gaintu berri, ongi dago etxarriarra, buruz eta sasoz. A multzoan ari da etxarriarra, Zabalarekin, Salaberriarekin eta Alberdirekin batera. Hasierako ligaxkako 1. jardunaldian Bakaikoa 5 tantotan utzi zuen Alberdi, baina 2. jardunaldian 12 eta 22 galdu zuen Zabalaren kontra. Zabala dagoeneko finalerdietara sailkatu da, bi garaipenekin, eta Salaberria aukerarik gabe dago, bi partidak galdu baititu. Hortaz, Bakaikoa edo Alberdi izango da beste finalista. Baina horretarako asteburu honetan jokatu den 3. jardunaldia irabazi beharra dute. Bakaikoa Salaberria izango du aurkari asteleheneko Beotibarren jaialdia zabalduko duen partidaren, eta Alberdik Zabalaren kontra jokatu du gaur, ostirala, Azeptian.

327 korrikalari eta ibiltari, onddo artean

ATLETISMOA Dantzaleku Sakanak antolatutako XIII. Onddo Lasterketak erantzun bikaina izan zuen: oinezko martxa, Onddo Lasterketa eta 41. Ferietako Eskolarteko Krosa batuta, hirurehun pertsona baino gehiago bildu zituen Altsasuko plazan

Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak antolatuta, larunbatean XIII. Onddo Lasterketa jokatu zen, proba ez lehiakor eta herrikoia. Pandemiagatik joan den urtean ezin izan zen antolatu, eta aurtengo kutsu berezia izan zuen: lasterketa beraren itzulerari, feriak ospatzeko ezin gogotsuago zegoen ikusleen eta korrikalarien grina eta jai giroa gehitu zitzaion. Horrela, lasterketa festa ederrean bilakatu zen.

Oinezko martxan parte hartu zutenak goizeko 10:30ean abiatu ziren Altsasuko plazatik, eta Onddo Lasterketan aritu ziren korrikalariak, aldiz, 11:00etan. San Pedron, Basoitzin eta ingu-

ruetan 7 kilometro osatu beharra zuten guztiek, ibilbide berbera kontrako norabidean eginez. 268 pertsona animatu ziren Altsasuko baso eta paraje zoragarrietan barna prestatutako zirkuitua egiten, oinez batzuk, eta korrikan besteak. Ondoren, partaideen artean 3 onddo saski zozketatu zituzten. Segidan 41. Ferietako Eskolarteko Krosa abiatu zen, kategoria txikiko lasterketak. 59 neska-mutiko aritu ziren, aurrebenjamin, benjamin, kimuen eta haurren mailetan. Antolatzailak "oso pozik" zeuden ekimenak izandako erantzunarekin eta sortutako giroarekin.



Hiru onddo saski zozketatu ziren.



Neska-mutikoak Ferietako Eskolarteko Krosean aritu ziren.



Oinezko martxa egitera animatu ziren asko.



Lasterketan parte hartu zuten hiru pertsona, helmugan.

ARETO FUTBOLA Osasuna Magna Xotak Jaen hartuko du gaur

Aurreko larunbatean El Pozo Murcia talde ahaltsuaren kontra garaipen zaporea zuen hiruak berdinketa lortu zuen Imanol Arregiren taldeak. Talde berdea hamaikagarrena da (2 puntu), Valdepeñas liderretik 4 puntura, eta gaur, ostirala, sailkapenean bigarren den Jaen taldea hartuko du, Anaitasuna pabilioian 20:30ean hasiko den partidari.

Garaipenaren zapore ona

ARETO FUTBOLA

Emakumezkoen senior mailako 1. mailan Xotak 4 eta 2 irabazi zion Murchanteri. Oso ongi aritu ziren irurtzundarrak, gol aukera apartak sortu zituzten eta ongi defendatu zuten. Hermo Coll (2), Youssra Chafia eta Irantzu Zarranz izan ziren golegileak. Sailkapenean laugarren dira eta asteburuan atseden jardunaldia dute.



CBASK Jatormanen buelta, garaipenarekin

SASKIBALOA Autonomien Arteko 2. Mailari Avia Zizur Ardoiri 71 eta 51 irabaziz ekin dio CBASKek

Autonomien Arteko 2. Mailako 2021/2022 denboraldia hasi da. Kategoria horretan Nafarroako eta Errioxako taldeak lehiatzen dira, CBASK Jatorman tartean. Aurreko denboraldian talde altsasuarra ligako txapeldunorde izan eta gero -Altsasun jokatu-tako Lauko Finalean 81 eta 74 galdu zuen San Cerninen kontra-, denboraldi berriari gogotsu ekin dio talde altsasuarrak.

Denboraldia duela bi asteburu hasi zen. CBASK Jatorman Enerparking Basket Navarra taldearekin jokatzeko zen, Arrosadian, baina partida urriaren 27ra atzeratu zuten. Hortaz, larunbatean 2. jardunaldiko Avia Zizur Ardoi taldearen kontrako partidarekin ekin zion ligari CBASK Jatormanek, Zelandin. Eta modu ikusgarrian, Zizurko taldeari 20 puntuko aldearekin irabazi baitzion (71 eta 51). Altsasuarekin joan den urteko xenda beretik hasi dute denboraldia.

Asteburuan 3. jardunaldia jokatu da eta Liceo Monjardin taldea izango du aurkari CBASK Jatormanek, larunbatean, 18:00etan, Iruñean.

Gainontzekoak ere martxan

Nafarroako Saskibaloia Federazioaren gainontzeko kategorien denboraldia ere abian da. Gizonen 2. senior mailan CBASK IFUEL taldeak bi jardunaldi jokatu ditu asteburuan. Gaur, ostirala, 1. jardunaldiko atzeratutako partida jokatu du, 20:45ean, Noainen, izen bereko taldearen kontra. Eta, larunbatean, CBASK Ifuelek Berriozar hartuko du Zelandin, 20:00etan.

Emakumezkoetan, junior mailako 1. mailan, asteburuan 2. jardunaldia jokatu zen eta CBASK Albeniz taldeak 51 eta 25 irabazi zion Larraona Claret taldeari. Bihar, larunbata, 16:30ean, CBASK Albenizek Burlada taldea hartuko du Zelandin.



Hamargarren Arte Azoka mustu zuten ostiralean; azaroaren 4ra arte egonen da zabalik.

Herri artea aldarrikatzen

Arte Azokak hamar urte bete ditu. Artebide elkarteak Altsasuko Ferien baitan antolatzen duen erakusketa da, eta helburu nagusia Sakanako artisten eta artista gonbidatuen erakusleho izatea da

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Idea Manolita Thunders artista altsasuarrarena izan zela gogoratu du Helena Santanok. "Gure artean komentatzen genuen Altsasuko Ferietan ganadu eta nekazal produktuen azoka badaude, zergatik ez dugu arte azoka bat egiten?". Sakanan artista "asko" zeudela konturatu ziren ere. "Berak ideia bota zuen, guk baietz esan genuen, eta mugitzen hasi ginen".

Batzuetan ideiak airera botatzen dira, baina errealitate bihurtzeko jendea "mugitzea eta antolatzea" ezinbestekoa dela nabarmendu du Santanok. "Nik ideia horretan sinisten nuen". Iortia kultur guneko erakusketa aretoa erabiltzeko baimena eskatu zuten, eta ordutik hamar urte pasa dira. Hamargarren Arte Azoka mustu zuten, Altsasuko Ferien baitan, aurreko

ostiralean. Ekitaldia artista eta herritarren topagune bihurtu zen, eta DJ Txenek musikarekin girotu zuen emanaldia.

Hamargarren urteurrenari, aldiz, ez diote "oihartzun" handirik eman. Urtero bezala mustutze ekitaldia egin zuten Altsasuko Ferietako ostiralean eta azaroaren 4ra arte zabalik egonen da. Igandean azoka kalera atera zuten. "Uste dut hasieran indartsuagoa zela, indar gehiago geneukalako". Ibilbide artistiko handia zuen jendea etortzen zela ere gaineratu du Santanok: "Hori bilatzen genuen ere, aten-

ARTISTEN ETA HERRITARREN TOPALEKUA DA ARTE AZOKA; MUSTUTZEA HORREN ADIBIDEA DA

tzioa deitzen zuelako". Koronabirusaren krisiak ere zerikusia izan duela aipatu du.

Herri mailako artea

Hasierako berritasuna ferietan urtero antolatzen den ekitaldi batean bihurtu zen. "Hausnarketa egin beharko genuke eta hemendik aurrera ea zer egingo dugun pentsatu". Santanori, esaterako, gai bat zehazten zutenean gehiago gustatzen zitzaion. "Horrela derrigorrez zerbait sortu behar duzu, ez da besterik gabe etxean dagoen lan bat hartzea eta ekartzea". Altsasuko Auziaren inguruan hausnartutako erakusketa egin zuten, esaterako, 2019. urtean.

"Niri interesatzen zait herri mailako eta interes artistiko desberdinetako jendea biltzea da". Arte Azokak Sakana mailan garrantzia handia dauka, herrie-

tan artea egiten dela erakutsi duelako. "Herri artea aldarrikatzea, hemen ere errepresentazio artistikoa badagoela, eta herrietan ere artearen bidez aldierazten garela". Erakusketaren bidez herritarren "adimena eta pentsamendua" asko ireki dela uste du Santanok. "Etortzen dira eta betiko bizilaguna zarela ikusten dute. Egiten duzunak nortasun handiagoa irabazten du". Ondare kulturala sortzen ari dira, gaur egungo artea egiten ari dira, herrian. "Agente lanak egiten ditugu. Jendea ez da inoiz galeria batera sartuko, baina hemendik pasatzen dira eta sartzen dira". Artea egitera animatu ahal diete horrela ere.

Artisten eta herritarren topalekua da Arte Azoka ere. Mustutze ekitaldia horren adibidea da. "Niri interesatzen zaidana da herri mailako eta interes desberdinetako jendea biltzea da. Lehenengo urteetako jendearen harriduratik, gaur egungo interesera pasa direla azaldu du artistak: "Orain gerturatzen dira eta galdetzen dizute ea zer esan nahi duen lan batek, zer adierazi nahi zuen artistak... Galdetzeraz ausartzen dira, eta hori da bere buruari galdetzen diotelako". Prezioaz ere galdetzen dute, eta artistek ere zenbait lan saldu izan dituzte.

Ferietako erakusketa "gehiago mugitzea" aukera bat izan daiteke. Baina horretarako administrazioaren laguntza gehiago behar dutela kritikatu du Santanok. "Guk hau egiten dugu nahi dugulako, barrutik sortzen zaigulako. Baina pixka bat zaintzea eta laguntzea eskatzen dugu". Eskakizunak sinpleak dira: "Aretoa bi asterako utzi beharrean hilabete baterako uztea, izan ere, kanpoko artistak datoz, Madrildik eta Bartzelonatik, eta bidai luzea da hain denbora gutxirako". Kultura "beste modu batera" zaindu behar da; "sareak egiten", eta Arte Azokak saretzeko ahalmena erakutsi du.

Topagune

Patxi Aldunate eta Alfredo Murillo artistek Cabeza de Ar-

ERAKUSKETAREN BIDEZ HERRITARREN "ADIMENA ETA PENTSAMENDUA" ASKO IREKI DA

tista kolektiboa osatzen dute. Artista gonbidatuak dira, eta Aldunate Iruñetik etorri zen mustutzero. Bigarren urtez parte hartu dute Arte Azokan, Sakanako "oso lagun mina" dutelako. Gonbidapenari erantzun zioten bitan, "eta gonbidatzen bagaituzte etortzen jarraituko dugu". Momentu honetan *Acéphale* erakusketa zabalik dute Iruñean ere.

Aldunate "oso gustura" etorri da erakusketara. "Altsasura etortzea beti plazera da". Iortia erakusketak artisten topagune bezala "garrantzia handia" duela esan du. "Artistak ezagutzen dituzu, bere burutazioak...". Herrietan egiten den guztiak "garrantzia handia" duela esan du artistak ere. "Hemengo jendearekin sustatuta eta kanpoko artistak ekartzen dituzte; topagune oso aberatsa eta aberasgarria da". Artearen munduan, gainera, "aktiboa" izan behar dutela azaldu du Aldunatek, "gonbidatzen zaituzten tokitar joan behar duzu".

Arte Azokan artistek erakusketarako propio sortutako arte lanak biltzen dira, baita aurretik egindako lanak erakusteko berreskuratzen dituztenak. Denboraren, gogoaren eta inspirazioaren arabera izan ohi da. Cabeza de Artista Sakanako erakusketarako sortutako lan bat aurkeztu du. Aurreko urtekoan ere propio sortutako lan bat ekarri zuten. "Guk beti egiten dugu lan toki jakin baterako. Honetatik ez da beste toki batera joango. Tailerrera joango da, eta hurrengorako beste obra bat aurkeztuko dugu".

Kolektiboaren teknika berezia da; paperean egiten dute lan eta laser batekin marrazkiak grabatzen dituzte. "Tailerrean izugarriko laser makina bat dut. Horrekin papera moztu edo grabatu daiteke. Kasu honetan papera zenbait tokitan gardena gelditzeko grabatzen dut". Horrela, zirrikitu horietatik, argia pasatzen da. "Teknika liluragarria da". Arte kritikoa egiten dute, eta Arte Azokak lanerako arkitekto modernoek inguru ez egokietan egiten dituzten "traste handi horiek" kritikatu nahi izan dituzte. Piezan eraikin bat ikusten da, baita burezur bat ere erdian. "Batzuetan jendea ulertzea kostatzen zaio, baina horretarako etorri naiz inauguraziora, azaltzeko".



Txistulariak, antolatzaileak eta babesleak, 'Bizipoza!' kontzertuaren aurkezpenean. UTZITAKOA

Herriek behar duten bizipoza

Euskal Herriko Txistularien Elkarteak 'Bizipoza!' kontzertua eskainiko du igandena, urriak 24, 12:30ean, Arruazuko plazan. Besteak beste, Lacturaleren eskutik iritsiko dira txistulariak Sakanara, herriak alaitzeko asmoz



BAZTERRETIK

IUNE TRECET OBESO ©

Zer STEM emakumerekin batera betetzen dituzu urteak?

Munduko hamar emakumetik hiruk bakarrik egiten du zientzia, teknologia, ingeniari eta matematikaren (STEM) eremu ikasketaren bat. Ingeniaritza eta informatikan are baxuagoak dira datuak gainera, emakumeen presentzia %8koa eta %3koa baita, hurrenez hurren.

Emakumeok STEM eremuan erreferenteak izatea garrantzitsua da. Erreferente hauek ezagutze aldera, ekimen asko ari dira sortzen gure inguruan, baina gaur aurkitu dudana xebearenarekin natorkizue: "STEM emakumeen egutegia".

Egutegi honetan, zientzia, teknologia, ingeniari eta matematikan dauden emakumeen efemerideak

aurki ditzakezu. Zure urtebetetzean zeinek beteko zituen urteak ikus dezakezu, eta ikasten joan, zein zen emakume hori, zer egin zuen... 700 emakume daude gutxi gorabehera sartuta.

Jolas dezagun!

• **Martxoak 31 (nire urtebetetzea):** Joan Feynman jaio zen. 8 urte zituenean bere amak "emakumeek ezin dute zientzia jardun, beren burmuina ez dagoelako horretarako prestatuta" esan zion. Horrek ez zion geldiarazi eta Joani esker auroren jatorria ulertu dugu.

• **Azaroak 9:** Hedy Lamarr jaio zen 1914an. Aktore izateaz gain, Casablanca estreinatu zen urte berean, Hedy Lamarrek komunikazio sistema sekretu bat diseinatu eta

patentatu zuen George Antheil konpositorearen laguntzaz. Frekuentzien konmutazioan oinarritutako asmakizunari esker, torpedoak irrati bidez gidatu zitezkeen, etsaiek antzeman gabe. Honek WiFi datu komunikazioa ahalbidetu zuen.

• **Abenduak 10:** Ada Byron jaio zen 1815. urtean. Historiako lehen programatzailea izan zen. Egun berean, baina 88 urte beranduago, Marie Curiek Nobel saria irabazi zuen, Nobel saria irabazten duen lehen emakumea. Gainera, 1911n, bigarren Nobel saria irabazi zuen, horrela, bi Nobel sari irabazten lehenengo pertsona bihurtu zen. Bere lehenengo lanak berunezko kaxa batean daude gordeta, duten erradioaktibitatearen ondorioz.

Gainontzeko datak, <https://labur.eus/STEMegutegia> estekara sartuz aurkituko dituzue. Disfruta ezazue ikasten.

Erkuden Ruiz Barroso ARRUAZU

Pandemia baten erdian jendeak "bizipoza" behar duela esan du Xabier Olazabal Etxegia Euskal Herriko Txistularien Elkarteko Nafarroako delegazioko kideak. "Lehenengo urtea pandemia urtea izan zen, itxita bizi izan ginen eta gero murrizketa asko egon ziren. Horren ondoren, bizi poza eman behar genuen". Alaitasuna eman nahi zuten txistuen bidez. "Ez bakarrik ikus-entzuleei, gure txistularien artean ere". Izan ere, pandemiaren erdian musika "formatu amateur batean" oso zaila izan dela azaldu du Olazabalek, eta haien artean eta txistuaren bidez "elkartzea, irri egitea eta musikaz gozatzea" behar zutela esan du. Behar horretatik sortu zen *Bizipoza!* Alardea eta igandean, urriaren 24an, 12:30ean, kontzertua eskainiko dute Arruazuko plazan. Eguraldi txarra egingo balu herriko etxean izanen da kontzertua.

Lagunak

Txistularien kontzertuak aurkezle oso bereziak izanen ditu, gainera: Lactutxiki eta Pontxa, Lacturale esneki enpresako maskotak. "Familiarteko kontzertua izanen da. Txistu kontzertu bat da, txistua oso instrumentu tradizionala da, baina oso ikuskizun polita antolatu dute, eta txistuari egin ahal dena oso handia dela erakusten dute". Maite Azpiroz Razkin Lacturaleko Marketing eta komunikazio ardura duna da, eta enpresan gizarte erantzukizuneko duten konpromisoa goraiatu du: "Litroko bi zentimo gizarte erantzukizunera bideratzen ditugu". Kirolarekin duten harremana ezagunagoa da, baina kulturarekin ere bat egiten dutela adierazi du Azpirozek. Esaterako, Euskal Herriko Txistularien Elkartearen babeslea da Lacturale.

Arruazun zita "polita" dago, beraz, igandean. Tartean Lacturalek antolatu du emanaldia, izan ere, Euskal Herriko Txistularien Elkarteko babeslea da esneki enpresa. "Beti egiten dituzten kontzertuetan parte hartzen genuen, eta zergatik ez kontzertu bat gure zonaldera ekarri?". Bizipoza Sakanara ekarri. "Hitz egin genuen Arruazuko ostaturakoekin beraiek ere babesa ematen dietelako, Ultzama postreekin, Arruazuko Udalarekin... Arruazu toki polita izan zitekeela pentsatu genuen". Haien filosofiaren barruan herriak

bizirik mantentzea dago. "Herri batean egin behar zen, eta Arruazun egitea erabaki genuen". Herrietan algara eta kultura mantendu behar dira.

"Duela sei urte inguru elkar ezagutu genuen". Elkarteak Iruñeko Alardearekin aurrera egiteko laguntza behar zuen, eta laguntza eskatu zuten. "Gaur egun, esaten dugu taldea egiten dugun taldeak garela". Lacturaleko familiaren parte dira txistulariak ere. "Beraiek laguntzen digute eta guk beraiei". Babesletza hauen bidez Arruazuko kontzertua bezalako "proiektu politak" egiten dituzte. "Gure kontsumitzaileei, gure herritarrei, bizipoza ematen duen zerbitu antolatzea oso polita da". Lacturalarekin batera, Arruazuko udalak eta ostaturak eta Ultzama postre-ek antolatu dute kontzertua.

Alardea

Euskal Herriko Txistularien Elarte "oso zabala" da, eta barruan delegazioak ditu. Nafarroakoak urte asko daramatza lanean proiektu berriak lantzen, eta horietatik garrantzitsuenetarikoa Iruñeko Sanferminetako Alardea dela azaldu du Olazabalek: "Laburki esateko Alardea txistularien orkestra bat da. 30 edo 40 txistulari elkarten gara eta zenbait instrumentuz lagunduta kontzertua prestatzen dugu". Kontzertua urtero "berria" da, ez dute kantarik errepikatzen eta txistulari "berdintsuak" diren arren, proiektu "guztiz" berria da. 2020an egin zuten alardea da Arruazun eskainiko dutena ere.

Kontzertuan "denetarik" interpretatuko dute. Ahalik eta anitzena sortzen saiatu dira. "Euskal musika egonen da, Balkanetako musika, Irlandakoa... hainbat kulturetako musika izanen da". Elkartearen ildo nagusietako bat da kontzertuetarako abestiak haiek sortu edo moldatzen dituztela, eta, horretarako, Nafarroako edo inguruko konpositoreei eskatzen diote lana. Alarde honetarako hainbat lan mustu ziztuzten, esaterako, Jokin Lekunberriren *Gazteluko plaza* pasodoblea, "benetan ederra da". Balkanetako musikan oinarritutako *Sher* obra egin du Joan Bardina Castarà konpositoreak ere; "eta konpositore asko aipatu genitzake". "Ikusgarria da ikustea nola txistuak beste kulturetako musika ere jo dezakeen".

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Eñaut Elorrieta bakarrik helduko da Altsasura. Bere gitarraren laguntzarekin kontzertu berezia eskainiko du, orain arte eskaini dituenekin alderatuta "desberdina". *Irteera argiak* azkeneko diskoaren abestiak izango dira oinarri, baina 25 urteko ibilbideari errebasoa egingo dio. Iñigo Aritza ikastolak 50 urte betetzen ditu, eta abeslariaren emanaldiarekin ospakizunei hasiera emango dio. Kontzertua bihar, urriak 23, larunbata, 20:00etan izanen da, eta dagoeneko sarre-rak agortu dira.

'Irteera argiak' da zure azken diska. Pertsonalena dela esaten dute.

Gaitegiari erreparatuta, *Deserriko kantak* deserriaren kontzeptuan oinarritu nuen. Deserriari ertz desberdinetatik begiratzen diot. Ez lekuan sentitzea eta horrek izan ditzake irakurketak maila emozionalean edo bizipen eta gertaera konkretuetan. Kontzeptu horren inguruan ibili nintzen; kontzeptu hori izan zen hari. *Irteera argiak* honetan gaiak anitzagoak dira. Bizitzaz, heriotzaz, maitasunaz eta abarrez hitz egiten dut. Azken urtetan gertatu zaizkidan gertaera horien gainean sortutako emozioez aritu naiz zuzenean hitz egiten. Nire gertaeren harira sortu ditut kantuak, eta beharbada horregatik aipatu dute pertsonalagoa dela.

Barrutik gehien mugitu zaituena?

Nik disko guztiak jotzen ditut oso pertsonal bezala. Nik sortu ditut eta nire barrutik ateratu dira. Disko honetan inoiz baino askeago sentitu naiz konposatzeko garaian. Nire lehenengo diskoan, orain distantziarekin begiratuta, Ken zazpitik nentorren eta Ken zazpitik urruntzeko nolabaiteko obsesio bat nuen, bertigo bat bakarkako bidea abiatzeko... Eta hortik pasatu behar nintzen derrigorrez. Ezinbesteko diskoa izan zen niretzako, nire ibilbidean diskorik esanguratsuena. Justu, horregatik. Horren ondoren, hainbat eta hainbat motxila askatzen joan naiz. Beharbada inoiz baino askeago sentitu naiz *Irteera argiak* egiten. Esango nuke *Deserriko kantak*-en deseraikuntza prozesu batean nengoela, eta oraingoan eraikuntza prozesu batean sentitzen naizela.

2019an kaleratu zenuen, eta, ondoren, pandemia etorri zen. Nolakoak izan dira bi urte hauek?



Eñaut Elorrietaren kontzertua izanen da bihar Altsasun. UTZITAKOIA

"Kontzertu berezia eta bakarra izango da"

EÑAUT ELORRIETA MUSIKARIA

Iñigo Aritza ikastolaren 50. urteurrenaren ospakizunen barruan 'Irteera argiak' kontzertua eskainiko du lortia kultur gunean

Bira bete-betean harrapatu gintuen. Kristona izan zen. Maila pertsonalean guztioi mugitu zaizkigu antzeko moduan barruak. Nire kasuan, behin diskoa grabatutakoan hustuketa prozesu bat egoten da, eta gero zuzenekoekin bete egiten naiz. Bai nire emanaldietan bai beste zuzenekoak ikustera joaten naizenean. Orduan, bat-batean prozesu hori errotik hautsi zen eta hasieran shock handia izan zen. Pixkanaka gauzak egiten hasi ginen, baina ordura arte

oso momentu gordina izan zen. Baina egoerak ere behartu ninduen formatu desberdinetan aritzera. Hasieran eszenatokiaren gainean bi pertsona baino ezin ziren egon, gero hiru... Eta horrek guztiak eraman ninduen

"BEHARBADA INOIZ BAINO ASKEAGO SENTITU NAIZ 'IRTEERA ARGIAK' EGITEN"

diskoa oso molde desberdinetan defendatzera. Irakurketa positiboa egiten dut egoerak behartu nau egoera arrunt batean egingo ez nituen gauzak egitera. Aberastu egin nau. Egia da lan askoz gehiago eta emanaldi gutxiago egin ditugula, edukiera lortu genuen. Urte oso emozioz zentzu horretan. **Emanaldi bereziak izan dira, ezta?** Kontzertuak ematen hasi ginean publikoa musukoarekin zegoen eta iruditu zitzaidan

kontzertuak hotzak izango zirela, tarte handia egongo zela publikoaren eta gure artean. Oso arraroa izango zela pentsatzen nuen. Hasierako kontzertu horietatik oso hunkituta itzultzen nintzen etxera. Ez dakit beharra genuelako edo musikaren bidez elkarri ulertzeko aukera ematen geniolako; baina oso kontzertu hunkigarriak izan ziren. Egoera normaltzen joan den heinean gure kontzertuak ere ohiko modura egiten joan gara. Niri gustatzen zait guztiagatik alde positiboa ateratu, eta horrekin gelditzen naiz.

Artistikoki zein puntutan zaude orain?

Pandemiarekin ziklo artistiko hori hautsi zenez, sortzeko beharra lehenago sentitu dut. Gauzak sortzen ari naiz. Oraindik ez dakit zehatz noizko izango den, baina hilabeteak daramatz sortzen. Normalean birek urte eta erdi edo bi urte irauten dute, baina pandemiak eten zuenez, oraindik deiak jasotzen ditugu eta erabaki genuen diskoaren bira luzatzea. Beraz, hurrengo hilabeteetan diska aurkezten ibiliko gara. Oso pozik. Bi urte joan dira eta bira horiek ez dira itzuliko. Gehien faltan bota dudana herrietako jaietako eta aire libreko kontzertuetan gehiago aritzea izan da. Zerbait egin dugu, baina zerikusirik ez aurreko urte horiekin. Arantza hori geldituko zait.

Biharko Altsasuko kontzertua nolakoak izango da?

Ni bakarrik hurbilduko naiz nire gitarrarekin. Iñigo Aritza ikastolaren 50. urteurrenean kokatzen da kontzertua eta ni ere irakaslea izan nintzen bezala handia hartzen dut ikastolan lan egiten duten ikasle, irakasle, ikasle ohi, guraso eta abarren eskutik gerturatu eta naizelako lortia kultur gunean. Kontzertu berezia eta bakarra izango dena prestatzen ari naiz. *Irteera argiak* diskoko abestiak joko ditut eta kontzertuaren bizkarrezurra izango da. Baina nire ibilbideko kantuez osatuko dut emanaldia ere. Azkeneko 25 urtetan sortu ditudan kantak. Badira bi kanta aspaldi jo gabe nituenak, eta Altsasurako bereziki prestatu ditut. Beraz, orain arte eman ditudan kontzertuetatik desberdinena izango da erreperitorio bera desberdina izango delako. Mimos prestatzen ari naiz. Kontzertu berezia izango da, gertuko.

"Kanpaina, esperientzia polita izan da"

Laboral Kutxako spot eta iragarkietan "Bizum" esaten duen Laboral Kutxako langilea, Jon Ander Fernández Chaparro altsasuarra da, Lakuntzako bulegoko kudeatzailea. Telebistan agertzen dena bera ote den galdetzeraz jende asko hurbiltzen zaiola aitortu du

Eneida Carreño Mundiñano eta Maider Betelu Ganboa ALTSASU / LAKUNTZA

1 Nor da Jon Ander Fernández Chaparro?

30 urteko gazte altsasuar bat, bere garaian Euskal Herriko Unibertsitatean, Gasteizen, Enpresa Zientzia diplomatura ikasitakoa. Ondoren Enpresa Administrazioa eta Zuzendaritzan gradua egin nuen, eta duela hiruzpalau urte Errioxako Unibertsitatean, aholkularitza finantzarioko masterra.

2 Zenbat denbora daramazu Laboral Kutxan lanean?

Azaroan zortzi urte egingo ditut, 22 urte nituela hasi bainintzen Laboral Kutxan lanean, diplomatura bukatu eta berehala.

3 Herri ezberdinetan egon zara lanean.

Leitzako bulegoan hasi nintzen, urte eta erdi inguru. Ondoren Etxarri Aranazko bulegoan 5 urte eta erdi egon nintzen eta Lakuntzakoan pandemia hasi baino bi aste lehenago hasi nintzen. Urte eta erdi pasa daramat.

4 Herrien artean aldea dago? Tratutako ezberdinak al gara?

Herrietan nik uste ezetz. Herri txikietan jendea oso-oso gertukoa da. Baina hilabete bat egon nintzen Sarrigurenen, eta hor nabaritzen zen hiriko jendea zela. Beste tratu mota bat zen.

5 Nola animatu zinen Laboral Kutxako kanpainan aritzera?

Uztail hasieran, posta elektronikoki bidez langileekin publikitate kanpaina bat egingo zutela esan ziguten. 50 langile inguru animatu ginen. Casting antzeko bat egin omen zuten, baina ni oporretan nengoen eta selfie bat bidaltzeko esan zidaten. 15 lan-kide hautatu zituzten, ni barne.



Jon Ander Fernández Chaparro, iragarki baten aurrean.

6 Halako kanpaina indartsua izango zela espero zenuen?

Niri esan zidatenetik, izan dena ez du inolako zerikusirik. Kanpaina 15 langileen artean gehiago orekatuko zutela espero nuen, baina bizpahiru pertsona gara protagonistak, eta gero beste 12ak bigarren mailakoak dira. Guk hori ez genekien. Iruñean markesina pilo bat dauka nire aurpegiarekin.

7 Non grabatu zenuten?

Kalean, bakoitza Euskal Herriko leku ezberdin batean. Bi egun ezberdinetan grabatu genuen, nire kasuan Iruñeko Sarasate pasealekuan.

8 Nolako izan zen grabazioa?

Whatsappez argazki bat bidali zidaten, 8-10 modelo ezberdinekin, antzeko arropa izanez gero, grabazio egunera erama-

teko eskatuz. Laboral Kutxan ez gara trajearekin janzen, informalagoak gara, eta freskotasun hori islatu nahi zuten. Nire arropa eraman nuen eta eurek aukeratu zuten. Horretaz gain, makillajekoak zeuden, ile-apaintzaileak... denetarik. Uztailean grabatu genuen, sekulako beroa egin zuen egun horietako batean, eta gu txaketarekin, izerditan...

9 Zenbat denbora egon zineten grabatzen?

Esaldi edo hitz berdina 50 aldiz errepikatuko nuen, ziurrenik. Ez gara profesionalak, eta hori nabaritzen da. Bideoak, kuñak eta argazkiak egiteko hiru ordu eta erdi inguru egon ginen, luze. Altsasuko telesaila grabatu zuen talde berdinak grabatu zuen; oso tipo jatorra, konfiantza eman zigun. Atzetik jende pila bat zegoen, 15 pertsonatik gora.

10 Kanpaina ikustean nola sentitu zara?

Hasieran arraro, baina gero oso gustura, emaitza polita delako eta batez ere jendeak aipatzen didanagatik. Mugikorra mezuz, aipamenez eta irudiz beteta dut eta Lakuntzako bulegoan ere ikusi nautela esaten didate. Madrilen eta Zaragozan lagunak ditut, eta hango bulegoetan ere kartelak jarri dituzte. Haraino heltzea sekulakoa da, ez?... (kar, kar). Dena den, nire burua karteletan ikusten dudanean arraro sentitzen naiz. Larunbatean, Altsasuko ferietan, jende dexente hurbildu zitzaidan ea ETBko iragarkikoa ote nintzen galdetzeraz. Baina kanpaina urria bukaeran despedituko da eta fama bukatuko zait! (kar, kar).

11 Kanpainak sekulako indarra du. Kaleko edozein markesinatan, ETBn, Laboral Kutxako bulegoetan eta beste hainbat webgunetan, han agertzen zara zu.

Bai, izugarria da. Azkenean ETB hemen asko ikusten da. Laboral Kutxak Teleberriko Kirolak babesten ditu, eta hor, egunero 10 segundoko spota ikusten da. Bestalde, Laboral Kutxako webgunean lehendabiziko aurpegia nirea da, eta Iruñera joaten den edozeinek ikusten nau. Lakuntzako bulegoan ere sarritan esan izan didate, ikusi nautela. Ez dakit kanpaina honek enpresarendako emaitza ona izango duen ala ez, baina publikitate arloko arduraduna pozik zegoen emaitzarekin, eta ni ere. Esperientzia gisa, oso polita izan da.